**UDALBATZAK 2010EKO EKAINAREN 25EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko ekainaren hogeita bosteko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ

Era berean, bertan dago udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna. Gai Zerrendako 6. puntuan bilkuratik alde egin du.

Ez dira etorri baina ezinetorria adierazi dute Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASAk eta Gorka MAUDES MIGELTORENAk (atxiki gabeko zinegotziak) lanagatik eta Joxe Mari BURGOS VIÑARASek (Alkarbide) laneko ezintasun egoeran dagoelako.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 25 DE JUNIO DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:30 horas del día veinticinco de junio del año dos mil diez, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRÉS JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA.
- Luís Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL.
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ

Igualmente Asiste el Interventor Municipal el Sr. Txema ARENZANA GARCÍA. (Se hace constar que abandonó la sesión en el punto nº 6 del Orden del Día).

No asisten, excusando su asistencia, los Sres. Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA y Gorka MAUDES MIGUELTORENA (Concejales no Adscritos) por motivos laborales, Joxe BURGOS VIÑARAS (Alkarbide) por encontrarse de baja laboral.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Bertan dago halaber, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

-----------------

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, batzarra hasi baino lehen, Jose Manuel Zamarreño familiari oroimen hunkigarri eta elkartasun-adierazpena egin nahi diotela, izan ere, gaur betetzen baita hamabigarren urteurrena Udalbatzako zinegotzia erail zutela. Haren ustez, den eguna delako, bere lagunohien oroimena merezi du.

Jarraian, ondoko puntuak ikusi dituzte.

**1. Udalbatzak 2010eko maiatzaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Idazkari Nagusiak 2010eko maiatzaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurritakoan.

Mintzatu dira:

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du, bere ustez, aktan ez dela jaso egun horretan gertatu zen gauza bat. Horrela, batzarra bukatu aurretik jendartean zegoen herritar bat saiatu zen zerbait esaten, eta Alkateak ez zion hitz egiteko txandarik eman. Eurek uste dute hori jaso beharko litzakeela, eta halaxe eskatzen dute.

* Merino alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) iritziz ez da egintza esanguratsua. Gaineratu duenez, batzarrean zehar jendea mintza

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

--------------------

* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) que en primer lugar, antes de comenzar el Pleno, tiene un recuerdo emocionado y de apoyo sincero a la familia de José Manuel Zamarreño puesto que hoy se cumple el duodécimo aniversario del asesinato del que fue corporativo de esta Corporación. Cree que por la fecha que es, merece un recuerdo de sus excompañeros.

A continuación se tratan los siguientes puntos.

**1.- Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 28 de mayo de 2010.**

Leída por el Secretario General el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 28 de mayo de 2010.

Se producen las siguientes intervenciones:

* La Sra. Cano (concejal No Adscritos) dice en euskara que a su juicio en el acta no se recoge un incidente que ocurrió dicho día. Así, antes de que se concluyera el Pleno un ciudadano que estaba entre el público trató de decir algo, y el Sr. Alcalde no le concedió la palabra. Piensan que dicho suceso se tendría que recoger, y así lo solicitan.

* El alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) opina que no es un hecho relevante. Dentro del desarrollo de un Pleno, añade,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

liteke nahiz eta hori ez egon aurreikusia. Jendeak mintzatu nahi badu, eta Alkateak uste badu ez diola hitz egiteko txandarik eman behar, bada, ez dio ematen. Bere aburuz, Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) proposaturikoak ez du ezer aportatzen batzarrean gertatu zena ulertzeko, eta horregatik, uste du ez duela aipamen horrek Aktan jasota egon behar.

cabe la existencia de público que aunque no está previsto que intervenga, cabe que pueda intervenir. Si quiere intervenir y el Alcalde considera que no le va a ceder el uso de la palabra, se lo dice así. Continúa diciendo que lo propuesto por la Sra. Cano (Concejala no Adscrita) no cree que aporte nada para la comprensión del desarrollo del Pleno por lo que no piensa que deba figurar dicha reseña en el Acta.

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du egintza hori gertatu zela, grabazioan agertzen dela Alkatearen erantzuna, eta arrazoi horregatik, jaso beharko litzakeela aktan.

* La Sra. Cano (concejal No Adscritos) dice en euskara que dicho hecho ocurrió, que en la grabación está la contestación del Alcalde, y que por dicho motivo piensan que tendría que aparecer en el acta.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du batzarrak irauten duen bitartean gauza asko gertatzen direla. Zinegotzi zenbait irten eta etortzen dira batzarrera, eta milaka anekdota izan litezke, baina horietako bakar batek ez dio eragiten gaien azalpenei, horien eztabaidari eta bozketari, hauek direlako akta batek jaso beharreko kontuak, gaineratu du. Gainontzekoa —dio— funsgabea da. Beraz, bada, bere iritziz, ez du aktan jasotzeko haineko garrantzirik.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que a lo largo de una sesión plenaria ocurren muchas cosas. Hay concejales que se ausentan y se incorporan a la sesión y podría haber múltiples de anécdotas, pero nada de eso aporta nada a la exposición de los temas, al debate de los mismos ni a su votación, que es lo que tiene que reflejar un acta. Lo demás es anecdótico. Por lo tanto, repite, considera que no tiene ninguna relevancia para que conste en el acta.

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du arrazoi horregatik abstenituko direla.

* La Sra. Cano (Concejala no Adscrita) manifiesta en euskera que por dicho motivo se abstendrán.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV eta PP) eta 6 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak eta atxiki gabeko zinegotziak).

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP) y 6 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak y Concejales no Adscritos).

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- **Onartzea** 2010eko maiatzaren 28ko ohiko bilkurari dagokion akta.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (593 zk.tik 727 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (770 zk.tik 1000 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Idazkariak Alkatetzak (593 zk.tik 727 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (770 zk.tik 1000 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emaniko ebazpenen berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Proposamena: 2010eko Madalenetan sariak ematea.**

Herriko jaietan omenaldi-sariak emateari buruzko ordenantzan xedatutakoari jarraiki.

Era berean, proposamena egin duten talde politikoek esan dutenaren arabera, pertsona horiek ordenantzan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzte.

Idazkari Nagusiak 2010eko ekainaren 10ean eginiko txostena ikusi dute.

Eta Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordeak proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du eurek ados daudela egin den aukeraketarekin. Hala ere, aitatu nahi dute —gauzak eginez ikasten direlako edo— prozedura aldetik aldaketa txiki bat egitea ondo legokeela, euren ustez,

- **Aprobar** el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 28 de mayo de 2010.

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 593 al 727, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 770 al 1000, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Se da cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 593 al 727, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 770 al 1000, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

**3.- Propuesta de concesión de distinciones en las fiestas patronales de Magdalenas 2010.**

De conformidad con lo establecido en la ordenanza reguladora de la concesión de distinciones en las fiestas patronales.

Se hace constar, que conforme declaran los grupos proponentes, las personas propuestas cumplen los requisitos exigidos en la ordenanza de aplicación.

Visto el informe del Secretario General de fecha 10 de junio de 2010.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Se producen las siguientes intervenciones:

* La Sra. Cano (Concejales no Adscritos) dice en euskara que están de acuerdo con la selección que se ha efectuado. No obstante, desean mencionar —porque andando se aprende— que estaría bien introducir una pequeña modificación en

pertsonai hauek normalean kulturarekin lotura dutenak izaten direlako, beharbada, normalagoa litzateke prozedura Kultura batzordetik bideratzea. Eta bestetik, gogorarazi nahi dute, aurten ez direlako oso erne ibili edo, ez dutela emakumezkorik omenduko. Hortaz, aurrerantzean gai horrekin kontu gehiagorekin ibiltzea gustatuko litzaieke.

el procedimiento debido a que dichos personajes normalmente, a su juicio, suelen estar vinculados con la cultura, tal vez, sería más normal que el procedimiento se ejecutara a través de la Comisión de Cultura. Por otra parte, desean recordar que, tal vez porque este año no han andado muy finos, este año no homenajearán a ninguna mujer. Por dicho motivo, les gustaría que en adelante tuvieran más cuidado al respecto.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du berak ez duela inolako arazorik ikusten ondoko urteetako araudia aztertzeko edo berrikusteko. Emakumearen aferari dagokionez, berriz, uste du atxiki gabeko zinegotziek berek aurkez zezaketela emakume bat, baina gizon bat aurkeztu dutela. Berari zuzena eta bidezkoa iruditzen zaio horrela izatea, baina gogorarazi nahi duela bi urte, bi emakume izan zirela. Edonola ere, bidezkoa iruditzen zaio Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) eginiko oharra, baina hori zinegotzi guztien esku dagoela, gaineratu du.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que no tiene ningún problema en que, para las próximas ocasiones, se estudie o revise la normativa. En cuanto al tema de la mujer indica que los mismos concejales no adscritos podrían haber presentado a una mujer y, sin embargo, han presentado a un hombre. Añade que le parece correcto y de justicia que así sea, pero recuerda que hace dos años hubo dos mujeres. Finaliza diciendo que le parece pertinente la observación hecha por la Sra. Cano (Concejala no Adscrita), pero que está en todos los concejales que así sea.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones:

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

▪ 2010eko Madalenetan (herriko jaiak) goraipamen-sariak ematea ondoko lagunei:

- Pedro eta Francisco Corostola Picabea jaunei.
- Mikel Ugalde Ugarte jaunari.

▪ **Conceder** las distinciones en las fiestas patronales de Magdalenas 2010 a:

- D. Pedro y D. Francisco Corostola Picabea
- D. Mikel Ugalde Ugarte.

**4. Proposamena: Telefono mugikorra: Abokatua eta prokuradoreak izendatzea.**

**4.- Telefonía Móvil. Propuesta de nombramiento de letrado y procuradores.**

France Telecom España, S. A. enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian errekurritu du telefono mugikorraren zerbitzuak ematen dituzten enpresek udal jabari publikoaren erabilpen pribatua eta aprobetxamendua berezia egiteagatiko tasa arautzen duen Ordenantzaren behin-betiko onespen-akordioa.

La empresa France Telecom España, S.A ha recurrido ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el acuerdo de aprobación definitiva de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por utilización privativa y del aprovechamiento especial del dominio público municipal a favor de las empresas que prestan servicios de telefonía móvil.

Telefono mugikorreko enpresek zerga ordaintzeko Ordenantza-onespenaren aurka tarteraturiko errekurtsoetatik eratorritako prozeduretan udal interesak defendatzeko asmoz Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du udalen ordezkaritza eta defentsa juridikoa egiteko prest dagoela jada abian dauden prozesuetan, eta halaber, gerora gaiari buruz ireki daitezkeenetan.

De cara a defender los intereses municipales en los procedimientos derivados de los recursos interpuestos por empresas de telefonía móvil contra la aprobación de las Ordenanzas reguladoras de la tributación de empresas de telefonía móvil, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha mostrado su disposición a llevar la representación y defensa jurídica de los ayuntamientos en aquellos procesos que se hayan abierto, y los que sobre la materia se puedan abrir más adelante.

Udalen interesetarako defentsa komuna egitea komenigarritzat jo denez.

Vista la conveniencia de que los intereses municipales tengan una defensa común.

Ogasuna batzordeak proposatuta.

A propuesta de la Comisión de Hacienda.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I  D U**

1. Defentsa-lanak udal-legelari Ignacio Chacon Pacheco jaunari egiteko **eskatzea**.

2. Bilboko Auzitegietan jardun ahal izateko nahiko eta bezainbeste **ahalmen ematea** Begoña Urizar Arancibia prokuradoreari eta Madrileko Auzitegietan jarduteko Rocio Martin Echagüe prokuradoreari.

3. Juan Carlos Merino Gonzalez alkatea

**A C U E R D A**

**1º.- Encomendar** la defensa letrada municipal a D. Ignacio Chacón Pacheco.

**2º.- Otorgar** poder general para pleitos tan amplio y bastante como en Derecho se requiera y fuere necesario, a favor de la Procuradora de los Tribunales de Bilbao Dña. Begoña Urizar Arancibia, y de la Procuradora de los Tribunales de Madrid Dña. Rocío Martín Echagüe.

**3º.- Facultar** al Alcalde D. Juan Carlos Merino



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**ahalmentzea** Errenteriako Udalaren izenean eta ordezkatuz beharrezko dokumentuak sinatzeko.

González para la firma de los documentos precisos para el otorgamiento de poderes en nombre y representación de este Ayuntamiento de Errenteria.

**5. Proposamena: 2009ko Kontu Orokorra onartzea.**

**5.- Propuesta de aprobación de la Cuenta General de 2009.**

Udalbatzako presidenteak 2009ko Aurrekontu Arruntaren Kontu Orokorraren likidazioaren berri eman du, 2010eko martxoaren 12ko Alkatetza-dekretu bidez onartua eta 2009ko martxoaren 27an eginiko osoko bilkuran berretsia. Hori guztia, abenduaren 19ko 21/2003 FAren 49.3 artikuluak xedatutakoari jarraiki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki-erakundeen Aurrekontuena.

Visto que el Presidente de la Corporación rinde la Cuenta General de los Presupuestos para 2009, a la que acompaña la Liquidación de los mismos, aprobada mediante Decreto de Alcaldía de fecha 12 de marzo de 2010 y ratificada por el Pleno en sesión celebrada el día 27 de marzo de 2009, todo ello en cumplimiento de lo establecido en el Art. 49.3 de la N.F. 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Aipatu kontu orokorra aztertua izan zen eta aldeko irizpena eman zitzaion 2010eko maiatzaren 21eko osoko bilkuran. Gero, 2010eko maiatzaren 28ko GAOn, 99 zk.an, argitara emana.

Visto que dicha Cuenta General fue analizada e informada favorablemente en la sesión de fecha 21 de mayo de 2010, siendo publicada en el B.O.G. nº 99, de 28 de mayo de 2010.

Idazkariak, 2010eko ekainaren 18an eginiko ziurtagiriaren arabera, espedientea jendaurrean egondako garaian inork ez du erreklamaziorik egin.

Visto que dentro del plazo reglamentario de exposición pública no se ha presentado reclamación alguna, según consta en certificado del Sr. Secretario de fecha 18 de junio de 2010.

Kontu-hartzaileak 2010eko martxoaren 12an 2009ko Aurrekontu Arruntaren likidazioari buruz eginiko txostena ikusi dute.

Visto el informe del Sr. Interventor de fecha 12 de marzo de 2010, relativo a la Liquidación del Presupuesto Ordinario de 2009.

Kontuan izanik TJOALren 114, 115 eta 116 artikuluetan xedatutakoa, apirilaren 2koa; FAAren 127. artikulua eta abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 193.an, Toki Ogasunen Arautzailea.

Considerando lo dispuesto en los Arts. 114, 115 y 116 de la L.R.B.R.L. de 2 de Abril; en el Art. 127 del R.O.F. y en el 193 de la Ley 39/1988 de 28 de Diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales.

Kontuen Batzorde Bereziak 2010eko maiatzaren 21ean eginiko txostena ikusi dute.

Visto el informe de la Comisión Especial de Cuentas de fecha 21 de mayo de 2010.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Kontuen Batzorde Bereziko buruaren proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (EB-Berdeak) esan du bere taldeak ez duela proposamenaren alde bozkatuko, hain zuzen bertako emaitza birtuala eta neurrira egindakoa baino ez delako, hots, Udal honetako errealitatearekin eta 2009ko benetako kontuekin ikusteko gutxi duena. Gaineratu duenez, eurek eta Errenteriako herritarrak konbentzitu nahi dituzte aurrekontuak 3 milioi euroko emaitza positiboa eman duela, baina hori eurek ezin dute aintzakotzat hartu, hain justu han dauden guztiek frogatu ahal izan dutelako Udalak emaitza negatiboa izan duela. Hau da, 2009an Udalaren defizita igotzen joan zen, eta beraz, Udal honen egoera ekonomikoan ez dago inolako hobekuntzarik. Aitzitik, 2009an egoera okertu egin zen, eta hori hola izanik, egungo Gobernu Taldea osatzen duten taldeek ez dute horri aurre egiteko gaitasunik erakutsi, eta ez dakite nola jardun oso konplikatua den errealitateari aurre egiteko. Hori horrela, gainera, egungo egunkarian bertan ikus dezakete nola Ogasunak jakinarazi duen Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa 2010ean aurreikusitakoa baino %3 gutxiago izan daitekeela.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du orokorrean EB-Berdeak-ek gaiari buruz egin duen irakurketarekin bat egiten dutela. Hala ere, euren zehaztapenak egin nahi dituzte. Horrela, gai honek eurentzat bi alde ditu: bata politikoa, eta bestea, teknikoa. Eurek politika zein teknika ikuspuntutik ezin dute onartu. Izan ere, Aurrekontuak zehaztu ziren garaian, bai diru-sarrerekiko, hala nola

Vista la propuesta del Presidente de la Comisión Especial de Cuentas.

Se producen las siguientes intervenciones:

Toma la palabra el Sr. Ferradás y manifiesta que su grupo no va a votar a favor de la propuesta porque lo que se les trae es un resultado virtual y creado a medida, que poco tiene que ver con la realidad que atraviesa este Ayuntamiento ni con las cuentas reales que se dieron en el 2009. Añade que no pueden pasar por alto que se les intente convencer, no solo a ellos sino también a la ciudadanía de Errenteria, de que hay un resultado presupuestario positivo de más 3 millones de euros, cuando la realidad que han podido constatar todos los que aquí están es que este Ayuntamiento tiene un resultado presupuestario negativo. Es decir, que en el 2009 se siguió incrementando el déficit municipal, por tanto, no hay mejora alguna en la situación económica de este Ayuntamiento. En el 2009 la cosa empeoró y, frente a eso, no ven capacidad de respuesta por parte de los grupos que conforman el actual Equipo de Gobierno y no saben como se piensa afrontar una realidad que es muy complicada. Sin ir más lejos, dice, en el periódico de hoy pueden encontrar una noticia donde se les comunica desde Hacienda que el Fondo Foral de Financiación Municipal puede ser un 3% inferior a lo previsto en el 2010.

* El Sr. Murua (concejal No Adscritos) manifiesta en euskara que en general están de acuerdo con la lectura realizada por el representante EB-Berdeak. A pesar de ello, desean realizar sus propias matizaciones. Para ellos este tema posee dos vertientes: una política y otra técnica. Ellos, tanto desde el punto de vista político como técnica, no pueden aprobar este tema, puesto que a la hora de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gastuekiko, euren ezadostasuna adierazi zuten. Gainera, eurek eginiko ekarpenak ez zituztenez kontuan hartu, orain emaitza hau lortu dute, zeinak Gobernu Taldearen kudeatzeko ezgaitasuna argi eta garbi adierazten baitu. Bere aburuz, hori hausnartzeko garaian aurrekariak kontuan hartu behar dituzte, eta zentzu horretan gogoratu behar dute 2009ko Aurrekontua egiteko 2008ko kitapenaren emaitza adierazgarria zela. Urte hartan —dio— izandako emaitza 600.000 €ko negatiboa zen. Egoera ekonomiko larri horretan nolabaiteko irizpidea zen gastuak murriztu behar zirela, eta dirua banatzeko sistema (fondo forala) berraztertu behar zela. Izan ere, jakin bai baitzekiten zeuzkaten diru-iturriek egoerari ez ziotela erantzuten. Hala eta guztiz ere, Gobernu Taldeak diru-sarrerak baino gastu gehiago onartu zituen. Bere aburuz, irizpide horiekin izandako emaitza aztertu behar dute, eta esan behar dute gastu-alorrean ez dutela batere lortu aldez aurretik ezarritako helburua. Orokorrean aurreko urtean baino %5 gehiago gastatuko dute, hots, 50 milioi

gehiago. Aurreko urtean, berriz, 47 izan ziren, gaineratu du. Alegia, nahiz eta irizpidea murriztekoa izan, %5 gehiago gastatu zuten. Eta hori garrantzitsua bada ere, eurentzat are handiagoa dauka ohiko gastuen aferak. Hor ere Gobernu Taldeak kale egin du, azken finean gastua ia %2 gehiago izan delako. Diru-sarreratan, ostera, aurkakoa gertatu da, hau da, gehiago lortu beharrean, %5 gutxiago erdietsi dute. Bi milioi gutxiagoz ari dira hizketan, eta horrek suposatzen du une horretan ez dutela gaitasunik ohiko gastuei aurre egiteko. Beraz, bada, ohiko gastuetan ere duten ahalmena baino gehiago gastatu dute. Hori da, datuen arabera, esan dezaketena. Bestalde, Gobernu Taldekoek, egin duten kudeaketa txarra itxuratu nahian edo, beste irakurketa bat egin dute, eta emaitzak beste modukoak izan direla esaten dute. Horretarako, lehen esan den bezala, irizpide kontableak aldatu dituen foru-arau batek emaniko gomendio batean oinarritu dira, horren aurka, bai

concretar el Presupuesto mostraron su desacuerdo tanto en relación a los ingresos así como en los gastos. Añade que no se tuvieron en cuenta las aportaciones que realizaron y ahora estos son los resultados que han obtenido, los cuales dejan bien a las claras la incapacidad de gestión que posee el Equipo de Gobierno. Piensa que a la hora de reflexionar sobre el mismo tendrían que tener en consideración los antecedentes existentes. Así, tienen que recordar que a la hora de realizar el Presupuesto de 2009 el resultado de la liquidación de 2008 era significativo. En aquel año —dice— el resultado fue de 600.000 € negativos. Prosigue diciendo que ante dicha situación grave el criterio era de aminorar los gastos, y que había que estudiar el sistema de distribuir los fondos forales, puesto que sabían que dichos ingresos no respondían a la situación existente. Sin embargo, el Equipo de Gobierno aprobó unos gastos superiores a los ingresos. A su juicio, tendrían que estudiar el resultado obtenido de dichos criterios, y tienen que decir que no han obtenido el objetivo marcado con

anterioridad. En general han gastado un 5% más que el año precedente, esto es decir, 50 millones más. El año anterior fueron 47, añade. En ese sentido, ven que, aunque el criterio era de aminorar, han gastado un 5% más. Y aunque eso es importante, para ellos aún lo tiene más el gasto corriente. Pueden decir que ahí también el Equipo de Gobierno ha errado, puesto que los gastos han sido casi un 2% superior. Con los ingresos —señala— ha ocurrido justo lo contrario, esto es, en lugar de conseguir más, se ha recaudado un 5% menos. Están hablando de dos millones menos, y eso supone que en esos momentos no disponen de capacidad suficiente para hacer frente a los gastos corrientes. Por tanto, también en los gastos corrientes gastan más de la capacidad que disponen. Eso es lo que pueden decir según los datos que poseen. Añade que el Equipo de Gobierno con el deseo de maquillar la mala gestión ha realizado otra lectura, pero los resultados, dice, demuestran otra cosa. Para ello, tal y como se ha mencionado, se han basado en una



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

udal teknikariak bai kontu-ikuskatzaileek, euren txostenak egin dituztelarik. Azken finean, Gobernu Taldekoek prentsan iragarritako 3,7 milioiko gerakin positiboa, errealitatean 5,8 milioiko negatiboa da. Eta hola, bi datuak alderatzen badituzte, 1,600 milioi pezetaz hitz egiten ariko lirateke. Ondoren, gazteleraz jarraitu du eta esan du kontua tekniko-juridiko ikuspuntutik argi eta garbi dagoela —nahikoa dute kontu-ikuskariek eginiko txostena—,

recomendación efectuada por una norma foral, la cual modifica los criterios contables, habiendo realizado sus informes tanto el técnico municipal como los auditores. En definitiva, dice, la remanente 3,7 millones anunciada en la prensa por el Equipo de Gobierno en realidad son 5,8 millones negativos. Y si comparan los dos datos, están hablando 1,600 millones de pesetas. A continuación,

izan ere, araudian ezarrita dauden betebehar zenbait berriro urratu baitute. Bere aburuz, politikoen iritziak teknikariek egiten dituzten dokumentuetan oinarritu behar dira. Hortaz, ildo horri jarriki, haren iritziz, beharrezkoa da ikuskaritza egitea, baina hori aplikatzeko egiten bada, ez baztertuta uzteko, gaineratu du. Eta, lehen esan duen moduan, kontu-ikuskaritzan planteatzen den emaitza Kontu Orokor honetan onartzeko ekarri denaren oso ezberdina da. Jarraian esan duenez, kontu-ikuskaritzaren txostenaren bigarren puntuan, beste behin ezagutzera ematen dira —ez daki Gobernu Talde honen ezgaitasuna edo intentzionalitatea— ordura arte ezagutzen ez zituzten datu ekonomiko zenbait. Alegia, kontu-ikuskarien txostenetan, urteak joan urteak etorri, ezagutzera ematen dira Udalak administrazio eta pertsona zenbaitekin izandako harremanak direla medio, erdietsi gabeko datu ekonomiko zenbait. Hori horrela, atxiki gabeko zinegotziei larria iruditzen zaie Udalak parte duen enpresa bateko datuak ez ematea. Azpimarratzeko beste kontu bat zera dela iruditzen zaie: Udalarekin kontratua duten bederatzi abokatuetatik batek bakarrik eman dituela datuak. Bere aburuz, egoera hori berehala zuzendu beharko litzateke, bestela aurreikusi ezineko ondorio ekonomikoak etor litezkeelako. Horrezaz gain, txosten horren 3. orrialdean, egin beharreko hainbat taxuketez —aurreko puntuan nabarmendutakoak— hitz egiten da, zeinak, 2009ko ekitaldian 5.800.000 €ko emaitza negatiboa atera zelako, egin beharrekoak baitira. Horixe da —dio—, kudeaketa txarra justifikatzeko egin nahi den interpretazio politikotik aparte, kontu-

en castellano, dice que desde el punto técnico-jurídico está claro –no hay más que leer el informe de la auditoría- que se ha vuelto a vulnerar una serie de premisas que se establecen en la normativa. Considera que las opiniones de los políticos se tienen que basar en los documentos que elaboran los técnicos. En esa línea, entiende la necesidad de la auditoría, pero la auditoría se hace para aplicarla, no para dejarla arrinconada y, como ya ha dicho, el resultado que se plantea en la auditoría es totalmente distinto al que se trae para aprobar en esta Cuenta General. A continuación dice que el informe de la auditoría, en su punto segundo, deja de manifiesto una vez más, no sabe si la incapacidad o la intencionalidad de este Equipo de Gobierno para que haya una serie de datos económicos que no se conozcan. En los informes de auditoría se pone de manifiesto año tras años que no se consiguen los datos económicos de una serie de administraciones y personas con las que el Ayuntamiento tiene relaciones económicas. En ese sentido, a los Concejales no Adscritos les parece grave el hecho de que una empresa en la que el Ayuntamiento tiene participación no haya facilitado esos datos. Continua diciendo que otro aspecto que merece resaltarse es el de los abogados que tienen relación contractual con el Ayuntamiento, ya que, de nueve abogados, solo uno ha aportado esos datos. Cree que esa situación debería corregirse inmediatamente porque de ella se pueden trasladar una serie de consecuencias económicas imprevisibles. Sigue diciendo que en la página 3ª de ese mismo informe se habla de una serie de ajustes –que son los que se que han resaltado en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ikuskaritzak esaten duena. Horrela, uste du Udaleko hurrengo udalbatzek “zama” hori herentzian jaso beharko dutela. Gainera,

atxiki gabeko zinegotziei gaia soilik teknikoa dela iruditzen zaienean, besteek irizpide politikoak teknikoen gainetik jartzen dituzte. Era berean, haren ustez, orrialde horretan bertan eta hurrengoan, Ezker Batua-Berdeakeko ordezkariak aitatu duen moduan, kontu-ikuskatzaileen iritziz, gastu zenbait baliogabeak dira. Gaineratu duenez, edozein pertsona edo talderen helburua aurrekoek egin zutena gainditzea izaten da, eta argi dago, Gobernu Talde honek gainditzen duela, izan ere, lehen gauzak gaizki egiten baziren, orain, bere iritziz, okerrago egiten ari baitira. Horrela, aurreko urteetan Gobernu Taldeak aurrekontu-kontsignaziorik gabeko gastuak onartzen zituen, eta kontu-ikuskatzaileen arabera, baliogabeak ziren. Aurten, berriz, aurreko urteko zifrak gainditu dituzte. Gainera oharrak ez dizkiote Udalari bakarrik egin, baita Adinekoen Egoitza eta Kirol patronatuei ere, hain zuzen toki administrazioko hiru erakunde horietan baliorik gabekoak izan daitezkeen gastuak onartu dituztelako. Gainera, gainditze-kontuez hitz egiten dutenean, esan behar dute baldintza horietan eginiko gastuak aurreko urtekoak %45ean gainditzen dituztela, eta hortaz, euren ustez, aurreikusi ezinak dira balio gabeko gertakari horietatik erator litezkeen ondorioak ere. Bere iritziz, argi eta garbi dago Gobernu Taldeak ez duela borondaterik egoera hori

zuzentzeko, eta Udalbatzaren eskumenak usurpatzen jarraitzen du, eta beraz, indarrean dagoen araudiaren aurka jarduten du. Patronatuei dagokionez, berriz, Kontu-ikuskatzailetzaren txostenak behin eta berriz aitatzen duena berak errepikatu baino ez du egiten, alegia, toki horietako kudeaketa ez dela, inola ere, indarrean dagoen araudiaren araberakoa. Beraz, bada, aurreko guztiaren ondorioz, Kontu Orokorraren aurka bozkatu beste erremediorik ez zaie geratzen. Amaitzeko, esan nahi du behin jarduketa irregular horietaz

el punto anterior- que son necesarios realizar y que desprenden un resultado del ejercicio del 2009 negativo en

5.800.000 €. Eso es lo que dice la auditoría al margen de la interpretación política que quieren hacer para justificar la mala gestión que se está haciendo. Esa “losa” la van a heredar las siguientes corporaciones del Ayuntamiento. Se están anteponiendo los criterios políticos por encima de los técnicos en una cuestión que a los concejales no adscritos les parece exclusivamente técnica. Sigue diciendo que, en la misma página y en la siguiente se habla, como ya ha mencionado el representante de Ezker Batua-Berdeak, de aquellos gastos que, en opinión de los auditores, son nulos de pleno derecho. Añade que para cualquier persona o grupo el objetivo debe ser la superación y que, desde luego, el Equipo de Gobierno se supera: si antes hacía mal las cosas, siguen haciéndolas peor. En ese sentido, dice que si en años anteriores el Equipo de Gobierno ya admitía gastos sin que tuviesen consignación presupuestaria y que –según la auditoría- eran nulos de pleno derecho, en este año han superado la cifra de años anteriores y, además, no solo lo han hecho en el Ayuntamiento sino que han incluido los patronatos de la Residencia de Ancianos y el de Deportes, ya que en esos tres estamentos de esta administración local se están admitiendo gastos que pueden ser nulos de pleno derecho. Hablando de superación, dice que el gasto realizado en esas condiciones supera al del ejercicio anterior en

un 45%, por lo que son imprevisibles las consecuencias económicas que se pueden derivar de que esos hechos se consideren nulos de pleno derecho. Es evidente que no hay voluntad por parte del Equipo de Gobierno de corregir esta actuación y de que se sigue usurpando las competencias que tiene el Pleno, actuándose así en contra de la normativa vigente. En cuanto a los patronatos, insiste en lo que refleja, una y otra vez, el informe de la auditoria y es que vienen haciendo una gestión que no se ajusta, en ningún caso, a la normativa vigente.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

jabetutakoan, atxiki gabeko zinegotziek gordetzen dutela onartuko denaren aurka jotzeko eskubidea, eta espero dute emaitzak dagokien epaitegietan ezartzen direnak izatea, betiere irregularitate horiek epaitegi horietan planteatzeko apustua egiten badute. Eta berriro dio, Udalaren egoera ekonomikoa oso larria dela, eta Gobernu Taldeak berorri aurre egiteko ez duela neurririk hartzen.

Dicho todo lo anterior, no le queda otra alternativa que votar en contra de la Cuenta General. Para finalizar dice que, una vez detectadas esas actuaciones irregulares, los concejales no adscritos se reservan el derecho de poder ir en contra de la aprobación esperando que los resultados sean los que se puedan establecer en los juzgados pertinentes, siempre y cuando opten por la decisión de plantear estas irregularidades en los mismos. Insiste en la grave situación económica del Ayuntamiento y en la falta de medidas por parte del Equipo de Gobierno para superarla.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du Ohiko Aurrekontuaz hitz egiten dutenean, behin behin-betikotasunez onartzen denean, bizirik dagoen dokumentu dela esaten da, alegia, urtean zehar aldaketak egin daitezkeela. Adibidez, aparteko diru-sarrerak igo edo gutxitu litezke egoera ekonomikoaren arabera. Hori horrela da, besteak beste, finantza-kudeaketa publikoa eta Espainiako administrazio publikoaren artean ematen den konstante bat da: hasierako aurrekontu, behin betikoak eta benetan exekutatzen direnen artean izaten diren aldeak. Aitzitik, Kontu Orokorra, Udalaren eta honen organismo autonomoen kontuen argazki “finkoa” da, kasu honetan 2009. urtekoa. Kontu orokorrarekin batera doa ikuskatzaileen txostena. Administrazio publikoan —dio— oro har tramitazio asko egin behar dira, bere iritziz, asko behar ez direnak eta ezer gutxirako balio dutenak. Hala, hitz egiten ari diren gaia kontrolatzeko mekanismo guztiak eskasegiak dira, baliabide publikoak maneiatzen dituztelako. Izan ere, eskarmentuak erakusten die ia-ia ezinezkoa dela —baita kasu honetan ere— legez ezarritako baldintza guztiak betetzea. Hori horrela, zailtasun horrek, tarteka, eramaten du, kontu-ikuskatzaileek adierazten duten eran, gauza eta erabaki zenbaitetan ez dela zehatz-mehatz betetzen indarrean dagoen araudia. Alabaina egia da eurek ezagutzen dituzten ikuskaletza bakar batean ere ez dela baieztatzen,

* El Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que cuando hablan del Presupuesto Ordinario, una vez que se aprueba definitivamente, suelen decir que se trata de un documento vivo que puede sufrir modificaciones a lo largo del año. Por ejemplo, puede aumentar en base a ingresos extraordinarios, o disminuir, como es el caso que se trata, en función de las circunstancias económicas que están tocado vivir. Tal es así, añade, que una de las constantes de la gestión financiera pública y de la administración pública en España viene siendo la discrepancia entre los presupuestos iniciales, los presupuestos definitivos y las ejecuciones reales de los presupuestos. Sigue diciendo que, al contrario del Presupuesto, la Cuenta General es la “foto fija” de las cuentas del Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos, en este caso, la correspondiente al 2009. A continuación dice que acompaña a la Cuenta General el informe de auditoría. La Administración pública, en general, está llena de mecanismos y de trámites que, desde su punto de vista, muchas veces son innecesarios y que valen para muy poco. En el tema del que están hablando, todos los mecanismos de control son insuficientes porque se trata de manejar recursos públicos. La experiencia demuestra que es prácticamente imposible -en este caso también- cumplir con todos los requisitos exigidos legalmente. Tal dificultad se traduce a veces en que se hacen



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ziur aski hori ezinezkoa delako, kudeatzaileak bikain egin dutela euren lana. Kontu bat da denbora pasa ondoren esatea gauzak nola egin beharko liratekeen eta oso ezberdina egunerakoak erakusten duena. Ziur aski —dio— ikuskatzaileek berek kudeatu beharko balute eta beste norbaitek fiskalizatu, zuzendu beharreko

zerbait izango zuketen. Bere iritziz, pasatzen denaren adibide bat da, gaur eguneko ekonomistak, egoera ekonomikoaren inguruko guztiaz, ausartzen dira aztertzera, iritzia ematera eta pontifikatzera. Aldiz, oso gutxi izan ziren —bateren bat bai— garaiz egitera ausartu zirenak. Esan liteke, inork ez zuela aurreikusi. Hitz eginez jarraitu du eta, administrazio publikoek oinarrizko hiru zutabetan jarduten dutela esan du. Hau da, legea, eraginkortasuna eta interes orokorrak. Alabaina, ildo horri jarraiki galdera zenbait otutzen zaizkio: legea ez litzateke kontuan eduki beharko eraginkortasunaren mesedetan? Edo eraginkortasuna egon behar du legearen menpean? Uste du, denak bat datozela Administrazioak legearen barruan eraginkorra izan behar duela esaten dutenean. Arazoa, ordea, zera da: bide baten hautua egiten bada, besteari ez uko egitea. Agintari batek, arrisku zenbait hartzeko prest ez dauden aholkulari teknikoekin, araudia goitik behera errespetatuz jarduten badu, nahiz eta horretarako eraginkortasunari uko egin behar izan, hori arrazoi batengatik egiten da. Hots: legea betez gero, ez da ematen behinere erantzukizun pertsonalik, hain zuzen eraginkortasunaren galera araudiari eragotzi dakiokeelako, eta ez gauzak exekutatzen dituenari. Justu aurkakoa gertatzen da alderantzizko kasuan, gaineratu du. Horregatik, beti saiatu behar da legearen barruan ahalik eta eraginkorrenak izaten, edo nahiago bada, eraginkortasuna helburu eta legea muga izaten. Administrazio zuzenbideko katedradun batek esaten

duenez, praktikan kudeatzaileak eraginkortasunez okupatzen dira, baina horien atzean kontrolatzaileak egoten dira. Hots, legea betetzen ote den ikusten duten teknikari guztiak. Hortaz, bada, ateratzen den

cosas y se toman decisiones que no cumplen estrictamente con la normativa en vigor, tal y como señalan los propios auditores. Pero es verdad que, en ninguna auditoria que conozcan, los auditores están en condiciones de afirmar que los gestores han sido extremadamente excelentes a la hora de gestionar los recursos públicos, probablemente

porque no es posible. Una cosa es decir cómo habría que hacer las cosas cuando el tiempo ya ha pasado y otra bien distinta cómo se hacen en el devenir diario. Seguramente, si los propios auditores tuvieran que gestionar y alguien los fiscalizase, también tendría algunas objeciones que hacerles. Un ejemplo de lo que pasa es que, actualmente y por utilidades economistas, se atreven a analizar, opinar y pontificar sobre todo lo que les ha llevado a la situación que les toca vivir, pero fueron muy pocos, aunque hubo alguno, los que se atrevieron a hacerlo con el tiempo suficiente. Otra cosa es, que nadie lo tuvo en cuenta. Continua diciendo que el funcionamiento de las administraciones públicas descansa sobre tres principios fundamentales esenciales: legalidad, eficacia e intereses generales. Pero al hilo de esto surgen algunas preguntas: ¿debería sacrificarse la Ley en aras de la eficacia?, o por el contrario, ¿es la eficacia la que debe ceder ante la Ley?. Todos convienen en que la Administración debe ser eficaz dentro de cauces legales. El dilema es si se elige un camino, no haya que renunciar a otro. Cuando una autoridad con sus asesores técnicos, que no están dispuestos a correr determinados riesgos, tiende a respetar escrupulosamente la norma aunque ello suponga sacrificar la eficacia, suele ocurrir por una razón que tiene su explicación: el cumplimiento de la Ley no produce nunca responsabilidad personal, dado que la pérdida de eficacia se puede imputar a la norma, no al que la ejecuta. Lo contrario sucede en el

caso inverso. De ahí que haya que procurar siempre el máximo de eficacia dentro de la legalidad, o si se prefiere, la eficacia como objetivo y la legalidad como límite. Hay un catedrático de derecho administrativo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

emaitza, harritzekoa bada ere, asimetrikoa izaten da, zeren eta, eraginkortasun ikuspuntutik ez dago legalitatea kontrolatzeko baliabiderik. Berak ez daki eurek lehenengo edo bigarren egoeran dauden, baina, ziur aski tartean bide asko egongo dela uste du. Halatan, harrigarriena da baldintza hauek direla medio, oreka hausten denean, ondorioak ez direla batere onak izaten. Kontu-ikuskatzaileek aurkezturiko txostenari dagokionez, lehen aitatu den moduan, egia da badaudela ondo egin ez diren kontu zenbait, non, esan den moduan, baliogabetasunaz ere hitz egin dezaketen. Hala ere, bere iritziz, baliogabetasun horrek ondorio oso mugatuak izango lituzte. Bestalde, kontu-ikuskatzaileek 2009ko ekitaldiari 5.360.000 € inputatu beharko liratekeela diote. Aldiz, Udalak, kasu honetan —ez 2008an gertatu zen moduan— Aldundiaren irizpideei jarraituz —ekonomia aldetik honek tutelatzen dituelako toki erakundeak—, bada, berari egin dio kasu. Abokatuen aferari dagokionez, berriz, batzordean aitatu zuten gisan, ezer gutxi egin litekeela uste du, hain zuzen ez dirudielako lege-baliabiderik dagoenik euren eskuetan dituzten datuak eman ditzaten, Hala ere, egia da badituztela datu zenbait, hain zuzen Udalarentzat lana egiten dutenen konstantzia geratzen delako zerbitzuren baten faktura egiten dutenean. Besterik da —dio— kontu-

que dice que, en la práctica, los gestores por antonomasia se ocupan de la eficacia pero, a sus espaldas, están los controladores: todos los técnicos que vigilan por el respeto de la legalidad. Nótese pues, que la situación resultante curiosamente asimétrica puesto que no hay mecanismos de control de la legalidad desde el criterio de eficacia. No sabe si ellos están en la situación primera o en la segunda. Seguramente en el medio hay mucho recorrido. Pero lo más extraño es que estas condiciones, cuando el equilibrio se rompe, las consecuencias no suelen ser buenas. Como dice, quizás en el medio estuviera el recorrido. En cuanto al informe que han presentado los auditores dice que, como se ha comentado, es verdad que en el se señalan algunas cuestiones que no se han hecho correctamente, e incluso, como se ha dicho, se podría hablar de nulidad. Advierte que la sentencia de nulidad tendría efectos muy limitados. Por otro lado, los auditores hablan de los 5.360.000 € que habría que haber imputado al 2009 y, sin embargo, desde el Ayuntamiento en esta ocasión, no como ocurrió en el ejercicio del 2008, siguiendo criterios de la Diputación que es la que tutela económicamente a las instituciones locales, ha hecho caso a la Diputación. En cuanto a la cuestión de los letrados dice que poco se

ikuskatzaileek benetan frogatu nahi izatea Udalak esaten duena eta beraiek detektatzen dutena. Amaitzeko, gaur osoko bilkurara onartzeko ekarri duten 2009ko Kontu Orokorrari dagokionez, hala nola horri buruz eginiko txostenaz, uste du edozein azterketa pasatzeko modukoa dela. Eta ez hori bakarrik, inguru hurbilean edo urrunean aurkez litekeen beste edozein konturekin konparatu litekeela pentsatzen du. Alabaina, kontu jakina da, denek berdin ikusten dutela, baina ez derrigor gauza bera, batzuetan ez duela ematen hizkuntza bera ere mintzatzen dutenik. Berak ulertzen du, gaur osoko bilkurara onartzeko ekarri duten Kontu Orokorraren inguruan bakoitzak bere jarrera azaldu behar duela, eta hori bidezkoak iruditzen zaizkion argudioekin

puede hacer como comentaron en la comisión, ya que no parece que haya mecanismos legales para obligarlos a facilitar los datos que tienen en su poder aunque, bien es verdad, que tienen algunos datos porque de toda la gente que trabaja para el Ayuntamiento queda constancia cuando ha facturado algún servicio. Otra cosa es, que los auditores quieran contrastar si se corresponde realmente lo que dice el Ayuntamiento con lo que ellos detectan. Para finalizar, en cuanto a la Cuenta General correspondiente al ejercicio 2009 que hoy traen al Pleno para su aprobación, así como el informe que la acompaña, dice que están en condiciones de afirmar que pasarían cualquier examen, superarían cualquier prueba y, además, soportarían cualquier



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

justifikatu behar duela.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du sinestezina dirudiela hain gertakari zehatzekin —interpretatzeko garaian guztien adostasuna eragin beharko zukeena—halako irakurketa diferentea egitea. Bere aburuz kontu-ikuskaritzaz hitz egiteko garaian, hark benetan esaten duenaz zentratu beharko lukete, ez nabarmendu begi bistakoa dena, ezta azpimarratu garrantzirik ez duena. Hau da, badakite kontu-ikuskatzaileak Udalarekin harremanak izaten dituzten hornitzaile edo erakundeetara jotzen dutela Udalean dauden dokumentuak ea benetako fakturak diren frogatzeko. Halaber, jakin badakite hori legeak ez diela derrigortzen, eta horretarako bereziki dedikatzen direnak abokatuak izaten direla. Bere iritziz, Udalak legez ezin ditu derrigortu, aldez aurretik eskatuta egin ez badute. Gaineratu duenez, nahiko denbora izan dute horrek garrantzia duen ikusteko, eta ez duela ikusi dute. Horrek, ordea, inolako tatxarik gabeko espediente bat aurkeztea eragozten ahal du, galdetu du. Bere iritziz, horiek nabardura-txikiak dira. Izan ere, berak jakin nahiko bailuke ea bateren batek ezagutzen duen kontu-ikuskatzaileek nabardura-txikiren bat egin ez dioten erakunderik. Gainera, uste du kontu-ikuskaritzak egiten dituzten enpresak arduratzen direla, euren lana justifikatzeko edo, nabarduren bat egitez, bestela, dena ondo egin dutela esanez gero, garrantzia galduko zuketelako. Gaineratu duenez, ez dira nahasi behar hirugarren mailako nabardurak eta muinari egin dakizkionak. Jarraian, zera galdetu du: ea zergatik azpimarratzen den batere garrantzirik ez duen zerbait. Horrela,

comparación a la que los quisieran someter con cuentas parecidas que se puedan presentar en el entorno más cercano o lejano. Pero, sabido es, que todos ven igual pero no necesariamente lo mismo, e incluso, que a veces, no hablan el mismo lenguaje. Comprende que cada uno debe justificar su postura con los argumentos que estime más oportunos a la hora de aprobar, o no, la Cuenta General que hoy traen al Pleno.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que es increíble que hechos tan concretos y que deberían concitar la unanimidad en la interpretación, puedan ser leídos de tan diferente manera. A continuación, hablando de la auditoría, dice que deberían centrarse en lo que de verdad dice, no enfatizar lo obvio ni resaltar lo que no tiene trascendencia. Es decir, saben que los auditores lo que hacen es dirigirse a los distintos proveedores o entidades que han tenido relaciones con el Ayuntamiento para certificar que sus facturas son las que constan en los documentos que tiene el Ayuntamiento. Saben también que a eso no los obliga la Ley, y que hay un colectivo especialmente dado a esas prácticas que es el de los abogados. Cree que el Ayuntamiento no tiene facultad legal para obligarles a presentar lo que, cuando se les ha requerido, no han presentado. Añade que han tenido ocasión de analizar si eso tiene importancia y que han visto que no la tiene. ¿Eso incumple lo que un expediente pulcro y cien por cien sin tachaduras podría presentar?, pues también es cierto; es lo que se llama reparos. Pero, quiere que le digan si alguien conoce alguna auditoria en alguna institución que no tenga ningún reparo. Cree, incluso, que las empresas que hacen auditorías se encargan de que surja algún tipo de reparo para justificar su trabajo, ya que si dijeran que todo se ha hecho bien parece que perdería cierta relevancia. No hay que confundir, añade, los reparos de tercera categoría con reparos que se le pudieran hacer al fondo de la cuestión. A continuación se pregunta por qué se quiere enfatizar



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

aurrekontuez hitz egiten denean, zenbakiak desitxuratzen dira. Izan ere, bi gehi bi beti baitira lau, eta hemen badirudi

beste konklusio batzuek atera nahi direla. Hortxe daude kontuak eta edonork interpreta ditzake, esan du. Orain, gainera, Aldundiak —sekula baztertu ez duten tutela-lana egiten duen organo serioa— ezarritako kontabilitate-printzipioak dituzte, eta eurek, normala den bezala, horiei jarraitzen diete. Berak ulertzen ditu kritikak edo kontua ez gustatzea, baina hauxe da legalitatea eta indarrean dagoen araudia, Foru Aldundiak zerbaiterako egin duena, nabarmendu du. Gaineratu duenez, ez liteke hartu gustatzen dena eta gustukoa ez dena errefusatu. Bera oso lasai dago legezkotasun ezaz hitz egiten denean, izan ere, norbaitek uste badu jarduketaren bat ez dela legezkoa, horretarako daude epaitegiak, nahiz eta ekintza ilegalez ez dela arinegi hitz egin behar uste duen. Besterik da —dio— norbaitentzat eztabaidagarriak izatea, baina berak ez dezake inola onartu udal kudeaketaren seriotasuna, are gutxiago, zintzotasuna, zalantzan ipintzea. Eurek baliabide eskasak eta urriak baliatu dituzte, halaxe egin dute iraganean, eta askozaz gehiago orain. Berak jakin badaki inork ez dezakeela kontsolatu “dagoen egoera” eta gainontzeko erakundeak zein gaizki dauden esanda. Bere iritziz, duintasun pittin batekin 2009ko aurrekontua irakurriz gero, ikus daiteke norabide onean doazela;

murrizteko garaian ez direla txapeldunak..., bada, ados, baina halaber uste du aitortu behar litzatekeela asko egin dutela eta gehiago egiteko bidean daudela. Hori, gainera, ikusiz joango dela uste du, beharrak behartzen duelako. Horrezaz aparte, berak hainbat gauza ikusten ditu —beste askok berak bezain argi ikusten dute— eta lehenengoa da horiek aitortzeko, egoera zaila eta larria delako, sakrifizioak egin behar dituztela, baina besteren batek badirudi egoera horrekin gozatu egiten duela. Berari batzuetan zalantzak sortzen zaizkio, ez kezkatzeko, denek bat egin dezaketela, esku bat botatzeko prest daudela,

algo que en absoluto tiene mayor relevancia. Cuando hablan del presupuesto se vuelven a tergiversar los números.

Dos y dos siempre son cuatro y aquí parece que se quieren sacar otras conclusiones. Las cuentas están ahí y cualquiera las puede interpretar. Sigue diciendo que ahora hay unos determinados principios contables marcados por la Diputación, órgano serio donde los haya con su labor de tutela de la que nunca ha hecho dejación, por lo que es normal que se acojan a ellos;. Entiende que se pueda criticar o no gustar, pero, esta es la legalidad y la normativa vigente y para algo la ha hecho la Diputación Foral. No se puede coger la que gusta y rechazar lo que no gusta. Él está muy tranquilo cuando se habla de ilegalidades. Si alguien piensa que alguna actuación es ilegal, para eso están los tribunales, aunque cree que no hay que hablar con ligereza de actos ilegales. Otra cosa es, que sean discutibles para cada cual. Pero, no puede permitir que se ponga en cuestión la seriedad –y menos la honradez- de la gestión municipal. Han manejado los “mimbres” que tienen, que son escasos y de baja calidad; así lo han sido en el pasado y mucho más en el presente. Sabe que a nadie le puede consolar pensar en lo que “está cayendo” y lo mal que están todas las instituciones. Cree que con un mínimo de honestidad se pueden leer los resultados del Presupuesto 2009 y ver que han ido en la buena dirección. Que no serán campeones en

la tarea de recortar y reducir..., de acuerdo, pero también debe de reconocerse que han hecho mucho y que están en la senda de hacer más. Eso se irá viendo porque, además, la necesidad los obliga. Sigue diciendo que constata varias cosas. Una de ellas, siendo él el primero que reconoce –otros muchos lo ven con la misma claridad- que la situación es difícil y apurada lo que los lleva a hacer sacrificios, es que alguno parece que está regodeándose en que eso así sea. Él tiene que poner en duda cuando se le dice, en ocasiones, que no se preocupe, que si quiere pueden ir todos a una y que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

etab. esaten diotenean, beldur baita esku hori ez ote den lepora izango. Berak ez du laguntzarik inon sumatzen; aitzitik, behatz-topaketak eta Udalari ez dagokion eta errurik ez duen kontuak azpimarratzen direla antzematen du. Berak kudeaketa eta baliabideak ahalik eta hobekien baliatzen dituela dio. Ondoren, zera galdetu du: ea Zapatero-planaren, Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, etab. moduko laguntza puntualak aprobetxatzea kritikatu behar zaion. Badaki hori ez zaiola egingo, eta badaki, hurrengo urtean ez direlako etorriko, horiek aprobetxatu behar direla, eta ez direla errefusatu behar, hain zuzen, laguntza horiek kontuak eta jarduerak ixteko oxigenoa eman dietelako. Jakin badaki, halaber, sakrifizioak egin beharko dituztela, baina inork ez diezaioke esan 2009an egin ez dituztenik. Beraz, bada, ongi etor bitez kritika eraikitzaile guztiak eta asmo onez eginiko ohar oro. Bestalde, esan behar du bezperan Ogasuneko diputatuarekin elkartu zirela eta honek kontuak eta aurreikuspenak nola zeuden esan zien. Aurreikuspen horiek ordukoak ziren, hamabost egunen buruan alda daitezkeelako. Ondoren, berari ez leporatzeko erantzukizun gabea, axolagabea eta xahutzailea dela eskatu du, hori erakusten duten frogarik ez dagoelako. Eskertzen du Udal kontu-hartzailearen kudeaketa, eta berak bat egiten du hark adierazitako zorroztasunarekin, baina ez dezake miraririk egin. Beraz, lehen aitatu duten eran, “pertsiana jaitsi” edo dituzten “baliabideekin” lanean jardun beharko dute.

ya echaran una mano, porque se teme que esa mano a donde la quieren echar es al cuello. Él no detecta apoyos por ningún sitio; detecta zancadillas y afán de resaltar aquella parte que ni le compete al Ayuntamiento ni de la que tiene culpa. Él tendrá que dar cuenta de la gestión y del mejor uso posible de los recursos que tiene. Seguidamente pregunta si se le va a criticar que haya aprovechado las ayudas puntuales del Plan Zapatero, de la Diputación Foral, del Gobierno Vasco, etc. Sabe que no, y sabe que hay que aprovecharlas y no rechazarlas por el motivo de que el año que vienen no vendrán. Esas ayudas les han aportado oxígeno para ir cerrado cuentas y actividades. Saben que habrá que seguir haciendo sacrificios, pero nadie puede reprocharles que no lo han hecho ya en el 2009. Por lo tanto, bienvenida sea toda aquella crítica constructiva y todas las advertencias en el buen sentido. Sigue diciendo que ayer los reunió el Diputado de Hacienda y les contó en que estado estaban las cuentas así como las previsiones. Previsiones respecto de las cuales les comentó que eran al día de hoy y que dentro de quince días sería lo que fuera. Seguidamente solicita que no se le acuse de irresponsabilidad, de inconsciente o de ser manirroto, porque cree que no son esas las pruebas. Agradece la gestión que hace el Interventor Municipal y su ejercicio de austeridad al que él se atiene, pero, no puede hacer milagros. Como ya han hablado aquí, o “echan la persiana” o tendrán que seguir trabajando con los “mimbres” que hay.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du Alkateak familia-ekonomiara jotzen duela egoera zenbait esplikatzeko, eta berak uste du edozein familiaren ekonomian hiru baldin badituzu eta bost zor, zorrak kitatzeko biren faltan zaudela. Hortaz, bada, kitatu beharreko defizita duzu eta ahaleginak egin behar dituzu bi horiek aurrezteko eta lehendik zor dituzun bost horiek ordaintzeko, esan dio. Jarraian, Merino alkate jaunari (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan dio berak ez duela inolako asmorik

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifiesta que el Alcalde suele recurrir a la economía familiar para explicar algunas situaciones y él piensa que en cualquier economía familiar si debes cinco y tienes tres, te faltan dos para pagar las deudas. Por lo tanto, tienes un déficit que corregir y tienes que esforzarte para ahorrar esos dos y pagar los cinco que debes inicialmente. A continuación le dice al Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), que no tiene ningún interés, ni personal ni político, en

—ez pertsonal ez politikorik— eskua lepora botatzeko. Izatez, berak eta Ezker Batua-Berdeak eginiko proposamena ez da Alkateari egina, Udalbatza osatzen duten 21 zinegotziei eta bertan dauden sei talde politikoei baizik. Gaineratu duenez, Alkateak egoera pertsonalizatu egiten du, arazoa ez denean pertsonala. Behintzat bere taldeak sekula ez da saiatu kontua pertsonalizatzen, eta horregatik, eskatzen dio egoeraren ondorioak ez hartzeko beretzat, Udalbatzarentzat baizik. Bestalde, Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ez dagoela hobeto egiterik esan du. Aitzitik, bere taldeko partaideek uste dute hobeto egin litekeela, eta hobeto egiteko, denen artean egin behar dute edo ez dago egoera konpon dezakeen supergizonik, esan du.

echarle la mano al cuello. En todo caso, la propuesta que él y Ezker Batua-Berdeak ha realizado no es al Alcalde sino al conjunto de la Corporación, a los 21 concejales que la componen y a los 6 grupos políticos que están aquí. Añade que el Alcalde hace personal una situación que no es un problema personal. Desde luego, su grupo nunca ha intentado trasladarlo a nivel personal, por lo que le solicita que no viva esta situación como personal sino como de la Corporación. Por otro lado dice que el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ha dicho que no es posible hacerlo mejor. Los miembros de su grupo “niegan la mayor”. Creen que es posible hacerlo mejor, y que para hacerlo mejor, o lo hacen entre todos o no es un superhombre quien va a arreglar esta situación.

* Muruak jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du Acosta jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) mintzaldian esan digu zer den eraginkortasuna eta zer den legezkotasuna, azkenean, kontzeptu horiek zein den zer argi gelditu ez bazaie ere. Ziur aski horietaz hitz egiteko beste leku bat egokiagoa izango litzateke. Era berean, denak bat datozen begien bistako kontu zenbait esan ditu, esaterako, Aurrekontua bizirik dagoen dokumentua dela. Haatik, ez da hain begi-bistakoa murrizketa eman dela. Murriztu, Gobernu Taldeak aurkezturiko Aurrekontua murriztu da, baina ez gastua, hau %5 igo delako, eurek azaldu dituzten kontuetan erraz asko froga daitekeen bezala. Hau da, modu batera edo bestera, bakoitzak bilatzen duenaren arabera, interpretatu litezkeen kontu zenbait daude. Hots, batek bere kudeaketa justifikatu nahi badu, irakurketa jakin bat egingo du. Aldiz, egoeraren benetako errealitatea jakin nahi badute, irakurketa diferentea egingo dute. Era berean, bera kezkatzen duten hainbat baieztapen egin ditu behin baino gehiagotan, esaterako, legea ez dela betetzen. Legea —dio— ez da erakunde abstraktu batek eginiko zerbait, legeak alderdi politikoak ordezkatuta dauden organoek egiten dituzte, eta horiek erabakitzen dituzte foru-arauak eta mailaz gorako besteak ere. Eta zera gaineratu du: “toki

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) indica que ha habido un momento en la intervención del Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en el que ha disertado sobre lo que es la eficacia y lo que es la legalidad y que, al final, no se han aclarado sobre esos conceptos. Probablemente, sería otro el foro más adecuado para hablar de ello. También ha dicho una serie de obviedades que todos comparten, por ejemplo, el hecho de que el Presupuesto es un documento vivo. Lo que ya no es tan obvio, e incluso no es cierto, es que ha disminuido. Lo que ha disminuido, es el Presupuesto que el Equipo de Gobierno ha presentado. Sin embargo, ellos han dado datos que comparados con el año anterior, que es la verdadera comparación que hay que buscar, prueban que han aumentado el gasto un 5%. Es decir, que hay una serie de cuestiones que se pueden interpretar de una manera o de otra en función de lo que cada uno busque. Si uno pretende justificar su gestión, hará una lectura determinada. Si lo que pretenden es ver la realidad de la situación, harán una lectura diferente. También ha hecho en varias ocasiones una serie de afirmaciones que a él le preocupan, como es el hecho de reconocer que no se cumple con la legalidad. La legalidad, añade, no es algo que viene dado por un ente abstracto. La legalidad la forman los órganos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

horietan zuek zaudete, eta indarrean dagoen legeria ez daitekeela bete uste baduzue, aldatu egin beharko zenukete". Ezin duzuena da Legearen aurka jardun, gaineratu du. Legea, gustatu ala ez, bete egin behar delako. Merino alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) mintzaldiari dagokionez, berriz, non kontuak irakurtzeko garaian zintzotasuna eskatu duen, uste du eurek egin litekeen irakurketarik zintzoena egiten dutela, eta Udalaren errealitate ekonomikoari buruz egiten duten irakurketa kontu-

ikuskatzaileen dokumentu teknikoei jarraiki, Kontu Orokorra osatzen duten agiriak, etab. irakurriz egin dute. Horietan oinarrituz egiten dute irakurketa jakin bat, Gobernu Taldeak egiten duenarekin bat ez datorrena, jakina. Haatik, Gobernu Taldeak onartu beharko du, ziur aski, berak egiten duen irakurketa gobernatzaileen kalitatearen baitan dagoela. Hau da, politikoki zuzena ez delako, inork ez du errekonozituko publikoki gaizki egin dutela. Hirugarren mailako nabardurei buruz esandakoaren inguruan, bere aburuz, Alkateak uste badu baliotasunik gabeko gastuak hirugarren mailakoak direla, bera ez dator bat iritzi horrekin. Aldundiak araudian oinarrituz kontuei buruz eginiko interpretazioari dagokionez, eta Alkateak behin eta berriro besteek komeni zaienak hartzen dituztela eta komeni ez zaizkienak ez, berak zera esan behar du: orain artean kontabilitaterako irizpide bat zegoela, eta egoera den bezalakoa delako, alderdi Sozialistak eta alderdi Jeltzaileak berori aldatu dutela kontuek beste egoera erakusteko. Hortaz, bada, beste irudi bat ematearren aldaketa egin dute, eta beroriek betetzekotan, lege-ikuskatzaileek dioten bezala, legeetan ere beste aldaketa batzuek egin beharko dituzte. Hau da, eurek ez dute nahi dutena hartzen eta nahi ez dutena uzten, alderdi Sozialistak eta alderdi Jeltzaileak baizik, horiek direlako bete behar dutenean betetzen ez dutenak. Alabaina, euren kudeaketa justifikatzeko, eurek eginiko azken aldaketa horri heltzen diote. Azken batean, bakoitzak egin dezaken baloraziotik aparte, Udalbatzako talde

donde están representados los partidos políticos y ellos son los que deciden las normas forales y otras de mayor rango. Añade: "En esos estamentos están ustedes y si creen que la legalidad vigente no se puede cumplir, lo que tendrían que hacer es cambiarla". Continua diciendo que lo que no puede ser es que actúen en contra de la legalidad. Hay que cumplir la legalidad, les guste o no les guste. En cuanto a la intervención del Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en la que les ha pedido honestidad en la lectura, indica que

ellos creen que lo hacen con toda la honestidad del mundo e intentan hacer una lectura de lo que entienden que es la realidad económica del Ayuntamiento basándose en los documentos técnicos: auditoría, documentos que completan la Cuenta General, etc. En base a eso hacen una lectura determinada que, evidentemente, no coincide con la lectura que hace el Equipo de Gobierno, el cual tendrá que admitir, probablemente, que su lectura está condicionada por su calidad de gobernantes. Es decir, que nadie va a reconocer públicamente que lo hace mal ya que no es políticamente correcto. En cuanto a lo dicho sobre los reparos de tercera categoría, indica que si el Alcalde considera que los gastos nulos de pleno derecho son de tercera categoría, no comparte la misma opinión. En relación a la interpretación que se hace de las cuentas basándose en la normativa que ha hecho la Diputación y a la insistencia del Alcalde en decir que cogen lo que les gusta y que lo que no les gusta no lo cogen, manifiesta que, hasta ahora, había un criterio para la contabilidad que, en base a una situación determinada, el partido socialista y el partido nacionalista vasco han cambiado para que dé unas cuentas que reflejen otra situación. Por lo tanto, si han hecho ese cambio para permitir dar esa imagen, tendrán que plantear otros cambios en otras leyes para que no se siga incumpliendo –como dice la auditoria- la legalidad vigente. Es decir, que no son ellos los que cogen lo que les gusta y lo que no, no; son el partido socialista y el partido nacionalista vasco los que lo hacen porque no cumplen la legalidad



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

guztiak bat datoz egoera ekonomikoa oso delikatua dela esateko garaian. Hori hala da hemen, Espainian eta Europa guztian, baina, era berean, argi eta garbi dago

administrazio ezberdin guztietan murrizketa handia suposatzen duen planak onartzen ari direla, esaterako, Gobernu espainolaren azken akordioa, zeinaren bidez 2013rako egungo %11,2 puntuko defizita %3ra murriztu nahi baita. Horrek esan nahi du gutxienez estutze-planen bidez kostua kopuru garrantzitsuetan murriztuko dutela. Eta horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak estutze-plan berdina edo antzekoa egin du. Haatik, ordea, hemen berak ez du ikusten inon estutze planik egin denik, eta horrek esan du hausnarketa sakona egin behar dutela, benetako estutze-plan baten beharrean daudelako eta horretarako egin beharreko bilerak egin behar dituztela, hain zuzen, irizpideak jartzeko estutze-plan horretarako. Horregatik, Kontu Orokorra onartu edo ez, funtsezko konklusioa da erakunde honek izaerako ekonomikoko neurriak hartu behar dituela dagoen egoera konpontzea nahi badute.

cuando tienen que cumplirla y, sin embargo, para justificar su gestión se acogen a este último cambio promovido ellos

mismos. Al final, al margen de la valoración que todos puedan hacer, todos los grupos de esta Corporación están de acuerdo en que la situación económica es muy delicada. Lo es aquí, en el Estado Español y en toda Europa, pero lo que también está claro es que desde diferentes niveles de la Administración se están adoptando planes de ajuste que suponen recortes importantísimos, como por ejemplo, el último acuerdo del Gobierno Español en el que se fija como objetivo para el año 2013 bajar el déficit del 11,2 actual al 3, lo que quiere decir que, por lo menos, el plan de ajuste va a reducir el costo en unas cantidades muy importantes. A consecuencia de eso, el Gobierno Vasco ha planteado el mismo o parecido plan de ajuste. Sin embargo, en esta entidad local no ve ningún tipo de ajuste, lo que requiere de una profunda reflexión para llegar a la conclusión de que necesitan un verdadero plan de ajuste y una serie de reuniones en las que se establezcan los criterios que deben utilizar en el plan de ajuste. Al margen de que se apruebe o no la Cuenta General, la conclusión fundamental es la necesidad que tiene esta institución de acordar medidas de carácter económico para que la situación que existe se vaya solucionando.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du bera bat datorrela estutze-planak egin, gastuak berregituratzeko neurriak hartu eta diru-sarrera gehituko dituzten aukerak bilatu behar direla esaten dutenekin. Kontua, ordea, zera da: hori egiten ari direla eta egiten jarraitzeko asmoa dutela. Haatik, uste du, nahiz diru-sarrerak zein gastu-murrizketak ez direla edonola egin behar. Bera konturatzen da zenbait kritika eta proposamen —kalifikatu nahi ez dituenak— oso errazak direla egitea beroriek doan ateratzen direnean. Aldiz, beroriek gobernuan eta herritarrengan eragina dutenean, ez dira hain errazak

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), manifiesta que está de acuerdo en que hay que hacer planes de ajuste, medidas que reestructuren los gastos y buscar opciones que aumenten los ingresos. La cuestión es que eso se está haciendo y que existe la voluntad de seguir insistiendo en ello. Lo que sí piensa es que, ya sea buscar ingresos o disminuir gatos, no hay que hacerlo de cualquier manera y buscando dónde se puede. observa que hay críticas y propuestas – que no quiere calificar- que son fáciles de hacer cuando esas opiniones salen gratis. Cuando ello repercute en el gobierno, en los ciudadanos y en la institución,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

izaten. Gaineratu duenez, gauzak dauden bezala egoteko, ikusteko handia du Foru Aldundiak 5.300.000 € emango ziela agindu eta azkenean gauzatu ez izanak. Aldundiak jokabide hori justifikatu du eta konpontzeko formula eman die. Hori zenbaiti ez zaie gustatzen, baina arautzeko ahalmena duenak (Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia) abalatuta dago. Eta berak, berriro dio, ez da gustukoa, baina legezkoa da. Horrek, ordea, ez du esan nahi pozez beterik daudenik, eta arazorik ez dagoela esaten dutenik. Hori onartzen dute, baina, era berean, zergatik ukatu begi-bistakoa dena, galdetu du. Zergatik ez dute baliatuko udal finantzei buruz babesteko lana duenak onarturiko erreminta, are gehiago, hori ez duenean alderdi politiko batek bakarrik egin. Gaineratu duenez, hori da onartu nahi ez dena, baina hori ez da berak asmatu eta ez du zertan begi-bistakotzat hartu. Diru-sarrerak murriztu direlako gastuak

ere murriztu behar direla esanez eginiko hausnarketaren inguruan, berak ez daki —kontua hain begi-bistakoa denez— zergatik galtzen duten denbora horretan, jakinik, gainera, ildo horretan doazela. Amaitzeko, berriro dio, ez du uste publikoki egiten diren proposamenak laguntzeko asmoarekin egiten direnik, Gobernu Taldeak hondoratzeko baizik. Haren iritziz, horixe da egin nahi dena, eta gainera, ez da leku bakarra. Legezkotasunari buruz hitz egiteko orduan zera uste du: udal aurrekontuak, beste erakundetakoak bezalaxe, irailean aurkeztu behar direla. Ondoren, ea norbaitek badakien hori betetzen den, galdetu du. Era berean, galdetu du, ea lege-hauste hori transzendentea den edo ez. Zeren eta, hala bada..., denok espetxera; ez soilik Errenteriako udala, inork betetzen ez duelako, denak baizik. Hortaz, legea aldatu behar bada, alda dezatela, bizkitartean bizirik iraungo dute, esan du.

ya no es tan fácil. Añade que uno de los hechos centrales es que la Diputación Foral les prometiera 5.300.000 € que no ha abonado finalmente. La Diputación ha justificado porqué lo ha hecho así y también les ha dado una fórmula de resolverlo. Fórmula que hay a quien no le gusta, pero que está avalada por quien tiene la capacidad normativa: Las Juntas Generales y la Diputación Foral. Insiste en que no gusta, pero, que es legal, lo que no significa que ello los llene de alegría y digan que no hay problemas. Todo eso lo admiten, pero también se pregunta por qué van a negar lo evidente, por qué no van a aceptar una herramienta que quien tiene la labor de tutela sobre las finanzas municipales así la ha acordado, siendo algo, además, hecho no solamente por un grupo político. Añade que eso es lo que no se quiere asumir, lo que no se quiere aceptar, y eso es algo que él no se ha inventado ni tiene por qué obviar.

En cuanto a la reflexión hecha sobre que hay que reducir gastos puesto que se han reducido los ingresos, indica que es algo tan obvio que no sabe por qué pierden el tiempo en eso, sabiendo, además, que están en esa dirección. Para finalizar insiste en que él no ve que las propuestas que se hacen en público tengan afán de ayudar sino de hundir al Equipo de Gobierno. Eso es lo que se pretende, dice, y no es en el único ámbito que se está haciendo. Hablando de legalidades, señala que la legalidad dice que los presupuestos municipales, como en otras instituciones, se deben presentar en septiembre, preguntando a continuación si alguien conoce un solo caso en el que eso se cumpla. También pregunta si esa ilegalidad es transcendente o no lo es. Si es transcendente... todos a la cárcel; no solo el Ayuntamiento de Errenteria sino todos, porque nadie la cumple. Si hay que cambiar la Ley, que se cambie; mientras tanto sobreviven.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

(Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV eta PP) eta aurkako 6 botoz (Ezker Batua-Berdeak eta atxiki gabeko zinegotziak),

12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP) y 6 votos en contra (Ezker Batua-Berdeak y Concejales no Adscritos).

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

1. **Onartzea** 2009rako Aurrekontuen Kontu Orokorra, zeinak ondorengo dokumentuak baititu:

1. **Aprobar** la Cuenta General de los Presupuestos para 2009, comprensiva de los documentos siguientes:

1) Udalbatzaren Aurrekontu Arrunta.
2) Adinekoen Egoitzako Aurrekontu Arrunta.
3) Errenteria Musikaleko Aurrekontu Arrunta.
4) Kirol Patronatuaren Aurrekontu Arrunta.
5) Diruzaintzako kontua.
6) Aurrekontuaren balore independente eta laguntzekoak.
7) Diru-bilketa kontua.
8) Egoeraren balantzea eta Galera eta Irabazien kontua.

1) Presupuesto Ordinario de la Corporación.
2) Presupuesto Ordinario de la Residencia de Ancianos.
3) Presupuesto Ordinario de Errenteria Musical.
4) Presupuesto Ordinario del Patronato de Deportes.
5) Cuenta de Tesorería.
6) Valores Independientes y Auxiliares del Presupuesto (VIAP).
7) Cuenta de Recaudación.
8) Balance de Situación y Cuenta de Pérdidas y Ganancias.

**6. Proposamena: Gure Kabiya 12/05 E.U.ko Plangintza Bereziaren 1. aldakataren behin-betiko onarpena.**

**6.- Propuesta de aprobación definitiva de la 1ª Modificación del Plan Especial de la U.I. 09/07: Gure Kabiya.**

Udalbatzak, 2006ko apirilaren 11n eginiko osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen *Gure Kabiya 09/07 E.U.ren Hiri-antolamenduaren Plan Berezia.*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 11 de abril de 2006, acordó aprobar definitivamente el *Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.I. 09/07: Gure Kabiya.*

2010eko otsailoaren 18an, Nasipa, S.L.k tramitatzeko aurkeztu zuen *Gure Kabiya 12/05 E.U.ko Plangintza Bereziaren 1. aldakata*. Dokumentu horren bidez etxebizitza gehiago egin nahi dira lehengo lurzorua gehitu gabe. Sustapen libreko etxebizitzak gehienez ere 28 izango dira eta 1. aldaketako testutik desagertzen da horietako bi

Con fecha 18 de febrero de 2010, Nasipa, S.L. presenta para su tramitación, el documento de la *1ª Modificación del Plan Especial de la U.I. 09/07: Gure Kabiya.* Dicho documento tiene por objeto incrementar el número de viviendas establecidas sin incrementar la superficie edificada. El número máximo de viviendas de promoción libre se establece



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Udalarentzat izango zirela, izan ere, Hirigintzako Hitzarmen bati esker, betebehar horren ordez sustatzaileak dirua jarriko baitu.

en 28 viviendas, desapareciendo del texto de la 1ª Modificación que dos de ellas corresponden al Ayuntamiento, ya que en virtud del Convenio Urbanístico 14, esta obligación se sustituyó por una compensación en metálico.

Etxebizitza-kopurua gehitu delako, aparkaleku gehiagoren beharra dago, eta horretarako beharrezkoa da bigarren garaje-soto bat egitea. Edonola ere, lurzoru hori ez da batugarria izango 2006an onarturiko Plan Berezian aurreikusitakoari. Horregatik, lurzoru horrek ez du gehituko egungoa.

Como consecuencia del citado incremento de viviendas, surge la necesidad de un incremento de dotación de aparcamiento para las que se hace necesario un segundo sótano, superficie en cualquier caso no computable y ya prevista en el Plan Especial aprobado en el año 2006; por lo tanto, superficie que no incrementa la actual.

Antolaketa-dokumentuaren aldatzen diren aldeak ondorengo hauexek dira: lerrokadurak, etxebizitzak, interpretazioa (atal berria).

Los documentos o partes del documento de ordenación pormenorizada que se modifican, son los siguientes apartados: alineaciones, viviendas, interpretación (apartado nuevo).

***Tramitazioa.-***

***Tramitación.-***

Udalbatzak, 2010eko martxoaren 18an eginiko bilkuran, hasierako onespena eman zion *Gure Kabiya 09/07 E.U.ren Plangintza Bereziaren 1. aldaketa,* beti ere 2010eko otsailean ARKILAN, Arquitectura y Urbanismok eginiko dokumentuaren arabera (EHAEOk 2010-02-12an ikuskatua).

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 18 de marzo de 2010, acordó aprobar inicialmente el documento de la *1ª Modificación del Plan Especial de la U.I.09/07: Gure Kabiya,* según documento redactado en febrero de 2010 por ARKILAN, Arquitectura y Urbanismo (visado por el COAVN el 12-02-2010).

Erabaki horri zegokion iragarkkia 2010eko apirilaren 1ean argitara eman zen “El Diario Vasco” eta “Berria” egunkarietan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 60 zk.an, 2010eko martxoaren 31n. Jendaurrean egon zen garaian inork ez zuen alegaziorik egin, Idazkari Nagusiak 2010eko maiatzaren 5ean eginiko ziurtagirian zehazten duenez.

El anuncio del referido acuerdo, fue publicado en el periódico “El Diario Vasco”, y “Berria” de fecha 1 de abril de 2010, así como en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa nº 60 de fecha 31 de marzo de 2010. Durante el período de exposición pública, no se han presentado alegaciones, según se especifica en el certificado emitido por el Secretario General con fecha 5 de mayo de 2010.

Era berean, hasierako onespen-akordioa eta dokumentazio teknikoa Uraren Euskal Agentziara

Así mismo, se remitió el acuerdo de aprobación inicial, junto con el documento técnico, a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bidali ziren, hain zuzen Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, egin beharreko txosten egin zezan.

la Agencia Vasca del Agua (URA), al objeto de solicitar informe preceptivo, según lo establecido en el art. 7 de la Ley 1/2006 de 23 de junio, de Aguas.

2010eko maiatzaren 11n, udal arkitekto Xabier Agirrek behin-betiko onespenaren aldeko txostena egin zuen, beti ere jakinaraziz beharrezkoa zela aldez aurretik Uraren Euskal Agentziaren ebazpena. Udal arkitektoak eginiko txostena ontzat eman du udal lege-aholkulari Vicente Castiella jaunak.

Con fecha 11 de mayo de 2010, el arquitecto municipal Xabier Agirre, emite informe favorable a la aprobación definitiva, especificando que debe de producirse la resolución previa de la Agencia Vasca del Agua en el sentido expresado. El referido informe del arquitecto municipal, ha sido conformado por el asesor jurídico municipal Vicente Castiella.

2010eko maiatzaren 17an, Hirigintza batzordeak plana behin-betiko onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Con fecha 17 de mayo de 2010, la comisión informativa de Urbanismo emitió dictamen favorable a la aprobación definitiva del plan.

2010eko ekainaren 4an, Uraren Euskal Agentziak (URA) Planaren 1. aldaketaren aldeko txostena bidali zuen.

Con fecha 4 de junio de 2010, la Agencia Vasca del Agua (URA), remite informe favorable a la presente 1ª Modificación del Plan.

*Hirigintza batzordeko presidentearen proposamena ikusitakoan.*

*Vista la propuesta del Presidente de la Comisión de Urbanismo.*

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du proiektu hau eta beste batzuk duela 6 urte onarturiko Plan Orokorreko irizpideetan oinarritzen direla. Eurek ohartu dira Plan Orokorrean ez dela ezer aldatu, eta hortaz, galdetzen dute ea zertara datorren orain aldaketa-proposamen hau. Aldaketa honetan hedadura handiko etxebizitzak eraiki beharrean, ba, txikiagoak egitea proposatzen da gaur egun bizitzetan bizi diren pertsona kopurua kontuan hartuta. Etxebizitza gehiago eginda eurek argi ikusten dute etekin handiagoak ekarriko dituela enpresa eraikitzailearentzat. Plan Orokorra onartu zuten garaian —duela 6 bat urte— bazekiten etxebizitza batean gero eta jende gutxiago biziko zela, hori datu-estatistiketan azaltzen zelako. Hala ere, orduan etxebizitza handiak egitea behar bat zela argudiatu zen, eta Plana aldatu ez denez, uste dute orduko behar horiek hor jarraituko dutela. Hortaz, orain jakin

* El Sr. Angulo (Concejal no adscrito) manifiesta en euskara que tanto este proyecto como otros se basan en unos criterios del Plan General aprobado hace ahora 6 años. Se han percatado de que en el Plan General no se ha modificado nada, y por ello se preguntan a qué viene ahora esta propuesta de modificación. En la modificación, en lugar de construir viviendas amplias, se propone realizar de menor tamaño teniendo en cuenta que hoy día en cada vivienda viven menor número de personas. Si se realizan más viviendas para ellos está claro que supondrá más beneficios para la empresa constructora. Cuando se aprobó el Plan General —hace 6 años— sabían que cada vez iba vivir menos gente en una vivienda, puesto que eso aparecía en los datos estadísticos. Y, sin embargo, entonces se argumentó que era una necesidad realizar viviendas amplias, y como no se ha



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

nahi dute zergatik proposatzen den etxebizitza txikiagoak egitea Plana aldatu gabe, hau da, etxebizitza txikiagoak egiteko Plana aldatzeko arrazoi nahikoa ez bada, zein da, orduan, puntu honetan eta bestean planteatzen den aldaketa egiteko arrazoi nagusia. Eurek argi ikusten dute enpresa eraikitzaileari mesede egiteko dela. Are gehiago, enpresa horiek, egun, salmenta libreko etxebizitzak saltzeko arazoak dituztenean, eta uste dute horregatik eskatzen diotela Udalari laguntza aldaketa hori egin dezan, gero eurek aukera gehiago izateko etxebizitzak saltzeko. Hori bai, lortuko dituzten etekinak ez dituzte banatuko, beraiek gelditukok dituzte, esan du. Azkenik, jakin nahi dute zein den Udalaren onura aldaketa honetan. Euren ustez, aldaketa onartu baino lehen Plan Orokorra aldatu beharko lukete, besteak beste, egungo egoera duela 6 urtekotik asko aldatu delako. Gainera, egoera ekonomiko honetan salmenta libreko etxebizitzak sustatzea ez zaie batere egokia iruditzen. Bukatzeko, Udalak enpresei laguntzeko duen prestutasun bera edukitzea gustatuko litzaieke herritarrei egiteko, esaterako, hobarien kasuan. Hori guztiagatik, eurek aurka bozkatuko dute puntu honetan eta hurrengoan.

modificado el Plan, ellos consideran que dichas necesidades estarán vigentes. Por ello, ahora desean saber porqué se propone realizar viviendas más pequeñas sin modificar el Plan, esto es, si la realización de viviendas más pequeñas no se considera un motivo suficiente para modificar el Plan, cuál es la principal razón para realizar la modificación que se plantea en este punto y en el siguiente. Para ellos está claro que es para hacer un favor a la empresa constructora. Incluso más, cree que dichas empresas actualmente tienen dificultades de venta de vivienda libre, y que por dicho motivo piden ayuda al Ayuntamiento para que éste haga la modificación correspondiente y así tengan más posibilidades de venta. Eso sí, los beneficios que obtengan no las distribuirán, sino que se quedarán con las mismas. A su juicio, antes de aprobar la modificación tendrían que cambiar el Plan General, entre otras cosas porque la situación actual se ha cambiado mucho con respecto al de hace 6 años. Además, dada la situación económica actual, no les parece nada adecuado que se promocionen viviendas de venta libre. Para finalizar, les gustaría que el Ayuntamiento tuviera la misma disposición de ayuda que tiene con respecto a los empresarios tuviese con respecto a los ciudadanos. Por todo ello, tanto en este punto como en el siguiente votarán en contra.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du zioen azalpena batzordean eman zela, eta teknikariek ziurtatzen dutela hirigintza-plangintzako araudia bete dela. Gaineratu duenez, gai hau onartzeko Plangintza Bereziaren aldaketa bat ekarri da, araudiak horixe eskatzen duelako.

* El alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), manifiesta que la exposición de motivos ya se hizo en la comisión correspondiente y que los técnicos certifican que se cumple la normativa en el planeamiento urbanístico. Añade que para aprobar este asunto lo que se trae es una modificación del Plan Especial, que es lo que marca la normativa.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP eta EAJ/PNV), aurkako 4 boto (atxiki gabeko zinegotziak)

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP y EAJ/PNV), 4 votos en contra

eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

(Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak)

**E R A B A K I  D U**

***A C U E R D A***

1. **Onartzea behin betiko *Gure Kabiya 09/07 E.U.ren Plangintza Bereziaren 1. aldaketa,*** beti ere 2010eko otsailean ARKILAN, Arquitectura y Urbanismok eginiko dokumentuaren arabera (EHAEOk 2010-02-12an ikuskatua).

1º.- **Aprobar definitivamente** el documento de la ***1ª Modificación del Plan Especial de la U.I.09/07: Gure Kabiya,*** según documento redactado en febrero de 2010 por ARKILAN, Arquitectura y Urbanismo (visado por el COAVN el 12-02-2010).

2. Erabaki honen **berri ematea** plana-sustatzaileei.

2º.- **Notificar** el presente acuerdo a los promotores del plan.

3. **Bidaltzea**, argitara eman aurretik, aldatutako plan bereziaren ale bat (ohiko euskarri magnetikoan) Gipuzkoako Foru Aldundiari, honek Erregistroan jaso dezan.

3º.- **Remitir, con carácter previo a su publicación,** un ejemplar de la presente modificación del plan especial (en soporte magnético y convencional) a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

4. Akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, **argitaratzea** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, argitara emango da probintzian gehien saltzen den egunkari batean.

4º.- **Publicar** el contenido íntegro del presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, junto con la normativa del plan. Igualmente, se publicará el presente acuerdo en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia.

**7. Proposamena: Aitzondo Berri 12/05 E.U.ko Plangintza Bereziaren 1. aldaketaren behin betiko onarpena.**

**7.- Propuesta de aprobación definitiva de la 1ª Modificación del Plan Especial de la U.I. 12/05: Aitzondo Berri.**

Udalbatzak, 2006ko apirilaren 11n eginiko osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen *Aitzondo Berri 12/05 E.U.ren Hiri-antolamenduaren Plan Berezia.*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 11 de abril de 2006, acordó aprobar definitivamente el *Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.I. 12/05: Aitzondo Berri.*

2010eko otsailaren 18an, Nasipa, S.L.k tramitatzeko aurkeztu zuen *Aitzondo Berri 12/05 E.U.ko Plangintza Bereziaren 1. aldaketa*.

Con fecha 18 de febrero de 2010, Nasipa, S.L. presenta para su tramitación, el documento de la *1ª Modificación del Plan Especial de la U.I. 12/05:*



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Dokumentu horren bidez etxebizitza gehiago egin nahi dira lehengo lurzorua gehitu gabe. Sustapen libreko etxebizitzak gehienez ere 28 izango dira.

*Aitzondo Berri.* Dicho documento tiene por objeto incrementar el número de viviendas establecidas sin incrementar la superficie edificada. El número máximo de viviendas de promoción libre se establece en 28 viviendas.

Etxebizitza-kopurua gehitu delako, aparkaleku gehiagoren beharra dago, eta horretarako beharrezkoa da bigarren garaje-soto bat egitea. Edonola ere, lurzoru hori ez da batugarria izango 2006an onarturiko Plan Berezian aurreikusitakoari. Horregatik, lurzoru horrek ez du gehituko egungoa.

Como consecuencia del citado incremento de viviendas, surge la necesidad de un incremento de dotación de aparcamiento para las que se hace necesario un segundo sótano, superficie en cualquier caso no computable y ya prevista en el Plan Especial aprobado en el año 2006; por lo tanto, superficie que no incrementa la actual.

Antolaketa-dokumentuaren aldatzen diren aldeak ondorengo hauexek dira: lerrokadurak, etxebizitzak, interpretazioa (atal berria).

Los documentos o partes del documento de ordenación pormenorizada que se modifican, son los siguientes apartados: alineaciones, viviendas, interpretación (apartado nuevo).

***Tramitazioa.-***

***Tramitación.-***

Udalbatzak, 2010eko martxoaren 18an eginiko bilkuran, hasierako onespena eman zion *Aitzondo Berri 12/05 E.U.ren Plangintza Bereziaren 1. aldaketa,* beti ere 2010eko otsailean ARKILAN, Arquitectura y Urbanismok eginiko dokumentuaren arabera (EHAEOk 2010-02-12an ikuskatua).

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 18 de marzo de 2010, acordó aprobar inicialmente el documento de la *1ª Modificación del Plan Especial de la U.I.12/05: Aitzondo Berri,* según documento redactado en febrero de 2010 por ARKILAN, Arquitectura y Urbanismo (visado por el COAVN el 12-02-2010).

Erabaki horri zegokion iragarkia 2010eko apirilaren 1ean argitara eman zen “El Diario Vasco” eta “Berria” egunkarietan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 61 zk.an, 2010eko apirilaren 6an. Jendaurrean egon zen garaian inork ez zuen alegaziorik egin, Idazkari Nagusiak 2010eko maiatzaren 5ean eginiko ziurtagirian zehazten duenez.

El anuncio del referido acuerdo, fue publicado en el periódico “El Diario Vasco” y “Berria” de fecha 1 de abril de 2010, así como en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa nº 61 de fecha 6 de abril 2010. Durante el período de exposición pública, no se han presentado alegaciones, según se especifica en el certificado emitido por el Secretario General con fecha 5 de mayo de 2010.

Era berean, hasierako onespen-akordioa eta dokumentazio teknikoa Uraren Euskal Agentziara

Así mismo, se remitió el acuerdo de aprobación inicial, junto con el documento técnico, a

bidali ziren, hain zuzen Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, egin beharreko txosten egin zezan.

2010eko maiatzaren 11n, udal arkitekto Xabier Agirrek behin betiko onespenaren aldeko txostena egin zuen, beti ere jakinaraziz beharrezkoa zela aldez aurretik Uraren Euskal Agentziaren ebazpena. Udal arkitektoak eginiko txostena ontzat eman du udal lege-aholkulari Vicente Castiella jaunak.

2010eko maiatzaren 17an, Hirigintza batzordeak plana behin betiko onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

2010eko ekainaren 4an, Uraren Euskal Agentziak (URA) Planaren 1. aldaketaren aldeko txostena bidali zuen.

*Hirigintza batzordeko presidentearen proposamena ikusitakoan.*

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP eta EAJ/PNV), aurkako 4 boto (atxiki gabeko zinegotziak) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

**E R A B A K I D U**

1. **Onartzea behin betiko *Aitzondo Berri 12/05 E.U.ren Plangintza Bereziaren 1. aldaketa,*** beti ere 2010eko otsailean ARKILAN, Arquitectura y Urbanismok eginiko dokumentuaren arabera (EHAEOk 2010-02-12an ikuskatua).

2. Erabaki honen **berri ematea** plana-sustatzaileei.

la Agencia Vasca del Agua (URA), al objeto de solicitar informe preceptivo, según lo establecido en el art. 7 de la Ley 1/2006 de 23 de junio, de Aguas.

Con fecha 11 de mayo de 2010, el arquitecto municipal Xabier Agirre, emite informe favorable a la aprobación definitiva, especificando que debe de producirse la resolución previa de la Agencia Vasca del Agua en el sentido expresado. El referido informe del arquitecto municipal, ha sido conformado por el asesor jurídico municipal Vicente Castiella.

Con fecha 17 de mayo de 2010, la comisión informativa de urbanismo emitió dictamen favorable a la aprobación definitiva del plan.

Con fecha 4 de junio de 2010, la Agencia Vasca del Agua (URA), remite informe favorable a la presente 1ª Modificación del Plan.

A propuesta del Presidente de la Comisión de Urbanismo.

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP y EAJ/PNV), 4 votos en contra (Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak)

***A C U E R D A***

1º.- **Aprobar definitivamente** el documento de la ***1ª Modificación del Plan Especial de la U.I.12/05: Aitzondo Berri***, según documento redactado en febrero de 2010 por ARKILAN, Arquitectura y Urbanismo (visado por el COAVN el 12-02-2010).

2º.- **Notificar** el presente acuerdo a los promotores del plan.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

3. **Bidaltzea**, argitara eman aurretik, aldatutako plan bereziaren ale bat (ohiko euskarri magnetikoan) Gipuzkoako Foru Aldundiari, honek Erregistroan jaso dezan.

3º.- **Remitir, con carácter previo a su publicación,** un ejemplar de la presente modificación del plan especial (en soporte magnético y convencional) a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

4. Akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, **argitaratzea** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, argitara emango da probintzian gehien saltzen den egunkari batean.

4º.- **Publicar** el contenido íntegro del presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, junto con la normativa del plan. Igualmente, se publicará el presente acuerdo en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia.

**8. Proposamena: Arramendi 36 sektoreko Plangintza Bereziaren (sustapen publikokoa) 1. aldaketaren behin betiko onarpena.**

**8.- Propuesta de aprobación definitiva de la 1ª Modificación del Plan Especial de promoción pública, del Sector 36: Arramendi.**

Arramendi 36 sektoreko Plan Bereziak 2.143 m2-ko eremu bat garatzea aurreikusten du Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokor modura (horniketakoak eta bestelako zerbitzuak (EKSO/6)) gizarte-ekipamenduak jartzeko (gazteentzako alojamenduak) 2.500 m2-ko gehienezko sabai-aprobetxamenduarekin.

El Plan Especial del sector 36: Arramendi, contempla el desarrollo de una parcela de 2.143 m2. Como Sistema General de Equipamiento Comunitario: Asistencial y Otros Servicios (SGEC/6) para la implantación de un edificio Comunitario (con un uso propuesto de Alojamiento Dotacional para Jóvenes), con un aprovechamiento de 2.500 m2. de techo máximo.

Plan Bereziaren aldaketak soilik gizarte-ekipamendu erabilerako eremuari eragingo dio. Ez du, beraz, planaren gainontzeko determinazioak aldatuko. Hori horrela, gazteentzako alojamenduak egiteko eraiki ere gehiago egin behar denez, eraikitzeko lurzorua gehitzea beharrezkoa da, hain zuzen lur gainean 1.800 m2 (s) eta lur azpian 700 m2 (s) izatetik, lur gainean 2.900 m2 (s) eta lur azpian 2.650 m2 (s) izatera pasatuz.

La presente modificación del Plan Especial afecta únicamente a los parámetros urbanísticos de la Parcela de Uso Comunitario, sin alterar al resto de determinaciones del plan. En dicho sentido, y motivado por las exigencias edificatorias que conlleva la promoción de los alojamientos dotacionales, se hace necesario aumentar la superficie construida prevista, pasando de 1.800 m2(t) sobre rasante y 700 m2 (t) bajo rasante, a 2.900 m2 (t) sobre rasante y 2.650 m2 (t) bajo rasante.

***Tramitazioa***

***Tramitación***



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko martxoaren 18an, erabaki zuen hasierako onespena ematea *Arramendi 36 sektoreko Plan Bereziaren (sustapen publikokoa) 1. aldaketari*, beti ere Joaquin Zubiría Sautu eta Leire Zenigaonaindia Muruamendiaraz arkitektoek 2010eko otsailean idatzitako proiektuaren arabera.

La junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada con fecha 18 de marzo de 2010 acordó aprobar inicialmente la *1ª Modificación del Plan Especial, de promoción pública, del sector 36: Arramendi*, según proyecto redactado en febrero de 2010 por los arquitectos Joaquín Zubiría Sautu y Leire Zenigaonaindia Muruamendiaraz.

Hogei (20) egunez jendaurrean egondako garaian inork ez du alegaziorik egin, Idazkari Nagusiak 2010eko maiatzaren 6an eginiko ziurtagirian adierazten duenez.

Durante el periodo de exposición pública de 20 días no se ha presentado ninguna alegación, tal y como se desprende del certificado emitido por el Secretario General con fecha 6 de mayo de 2010.

2010eko martxoaren 29an, Uraren Euskal Agentziari (*Ur Agentzia)* baimena eskatu zitzaion. Erakunde horrek, 2010eko ekainaren 8an, Plan Bereziaren 1. aldaketa egitearen aldeko txostena egin zuen. Bertan, adierazten da obra-sustatzaileak eraikitzeko eta urbanizatzeko obra-baimena eskatu eta horien proiektua ekarri behar duela.

Con fecha 29 de marzo de 2010, se solicitó la preceptiva autorización de la *Agencia Vasca del Agua – Ur Agentzia*. Dicho organismo remite con fecha 8 de junio de 2010 informe favorable a la presente 1ª Modificación del Plan Especial, señalando que el promotor de las obras debe solicitar la autorización de la edificación y de la urbanización adjuntando proyecto constructivo de las mismas.

2010eko ekainaren 10ean udal arkitekto Ramon Ruiz Mendoza jaunak aldeko txostena egin du.

Con fecha 9 de junio de 2010, el arquitecto municipal Ramón Ruiz de Mendoza, emite informe favorable.

2010eko ekainaren 10ean, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak zegokion txostena egin du.

Con fecha 10 de junio de 2010, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella, emite informe jurídico correspondiente.

Hirigintza batzordeko presidentearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta del Presidente de la Comisión de Urbanismo.

Mintzatu dira:

Se produce la siguiente intervención:

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du, kasu honetan aldaketaren nondik norakoa argi ikusten ez badute ere, alde bozkatuko dutela. Euren iritziz, bazen garaia Udalak alokairuan

* Toma la palabra el Sr. Angulo (Concejal no Adscrito) y manifiesta en euskera que en este caso, aunque no ven con claridad los motivos de la modificación, votarán favorablemente. Consideran



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

emateko etxebizitzak bultza zitzan. Uste dute proiektuaren arabera eraikiko diren apartamentuek zinez erantzuten dietela herritarren beharrei, batez ere gazteenei. Horrez gain, Udalbatzar honi 2007ko azaroan aho batez onarturiko akordio gogorarazi nahi diete. Izan ere, Udalak galdutako epaiketa baten ondorioz, Esnabiden alokairuzko 27 etxebizitza eraiki behar ditu, eta erabaki hori jasotzen den dokumentuan bertan Arramendiko etxebizitzak eraikitzea jasotzen da. Beraz, Arramendiko proiektuan bezala, Esnabideko etxebizitzak lehenbailehen eraikitzeko tramiteak hasteko exijitu nahi dute.

que ya era hora para que el Ayuntamiento impulsara la construcción de viviendas en alquiler. Creen que los apartamentos que se construyan según el proyecto responderán a las verdaderas necesidades que tienen los ciudadanos, sobre todo de los jóvenes. Además, desean recordar al Pleno el acuerdo aprobado por unanimidad en noviembre de 2007, donde el Ayuntamiento, debido a que perdió un juicio, tenía que construir 27 viviendas de alquiler en Esnabide, y en el mismo documento que se recoge dicha decisión se establece la obligación de construir viviendas en Arramendi. Por ello, al igual que en el proyecto de Arramendi, exigen que se empiece cuanto antes con los trámites para la construcción de viviendas en Esnabide.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizada la intervención.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I  D U**

***A C U E R D A***

1. **Behin betiko onartzea *Arramendi 36 sektoreko Plan Bereziaren (sustapen publikokoa) 1. aldaketa***, Joaquin Zubiría Sautu eta Leire Zenigaonaindia Muruamendiaraz arkitektoek 2010eko otsailean idatzitako proiektuaren arabera.

1º.- **Aprobar definitivamente**, la ***1ª Modificación del Plan Especial, de promoción pública, del sector 36: Arramendi***, según proyecto redactado en febrero de 2010 por los arquitectos Joaquín Zubiría Sautu y Leire Zenigaonaindia Muruamendiaraz.

2. Erabaki honen **berri ematea** planaren barruan sartutako eremuko jabekideei.

2º.- **Notificar** el presente acuerdo a los propietarios de terrenos incluidos en el plan.

3. **Bidaltzea**, argitara eman aurretik, aldatutako plan bereziaren ale bat (ohiko euskarri magnetikoan) Gipuzkoako Foru Aldundiari, honek Erregistroan jaso dezan.

3º.- **Remitir, con carácter previo a su publicación,** un ejemplar del presente plan especial (en soporte magnético y convencional) a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

4. Akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, **argitaratzea** Gipuzkoako Lurralde Historikoko

4º.- **Publicar** el contenido íntegro del presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Aldizkari Ofizialean. Era berean, argitara emango da probintzian gehien saltzen den egunkari batean.

Histórico de Gipuzkoa, junto con la normativa del plan. Igualmente, se publicará el presente acuerdo en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia.

**9. Proposamena: Errenteriako Udalerako telefono finkoa eta mugikorra kontratatzea.**

**9.- Propuesta de contratación del servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria.**

Errenteriako Udalaren Telefonia finkoa eta mugikorra" izeneko zerbitzua kontratatzeko beharra ikusi dute.

Vista la necesidad de proceder a la contratación del "Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria".

Horretarako, kontratazioa arautuko duten baldintza-agiri ekonomiko-administratibo eta teknikoak egin dituzte.

Visto que se han redactado al efecto los correspondientes Pliegos de Condiciones Económico-administrativas y técnicas que han de regir la contratación.

Informatika eta Komunikazioetako ordezkariak proposamena egin du.

Vista la propuesta del Delegado de Informática y Comunicaciones.

Udal kontu-hartzaileak 2010eko maiatzaren 3an txostena egin du.

Visto el informe del Sr. Interventor Municipal de fecha 3 de mayo de 2010.

Kontratazioa eta Ondarea Saileko arduradunak 2010eko maiatzaren 27an txostena egin du.

Visto el informe del Responsable de Contratación y Patrimonio de fecha 27 de mayo de 2010.

Halaber Kontratazio-mahaiak.

Visto el informe de la Mesa de Contratación.

Eta Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du telefono finkoa eta mugikorraren zerbitzua emateko kontratua amaitzen denez, lehiaketa bidez berria egiteko deia da. Batzarrera ekarri badute esleitzeko epearengatik da,

* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y manifiesta que se trata de una nueva licitación para el servicio de telefonía fija y móvil puesto que termina la que estaba en vigor. Añade que el hecho de traerlo al



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bestetan ere horrelakoak gertatu izan direlako. Hala ere, horrekin ez du esan nahi normaltasunaren barruan ez daudenik, hain zuzen ez daudelako aparteko gai baten aurrean.

Pleno es debido al plazo de la adjudicación; hecho que también ha sucedido en otras ocasiones. Con esto no quiere decir que no esté dentro de la normalidad. No se trata de ningún tema excepcional.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du eurek erabat ados daudela proposamenean jasotzen den prozedurarekin, baina ikusita bigarren puntuan esaten dena, abstenitu egingo dira. Azken finean ez daudelako prest Udalbatzarrari dagozkion eskumenak beste batengan uzteko.

* Interviene El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) y manifiesta en euskera que están totalmente de acuerdo con el procedimiento que se recoge en la propuesta, pero viendo que es lo que se dice en el punto segundo, se van abstener. Porque en definitiva no están dispuestos a otorgar las competencias que correspondan al Pleno sean concedidas a otros.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) uste du garrantzi gutxiko kontua dela. Hala ere, Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) bere iritzia adierazteko eskubidea duela, esan du.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) cree que es más bien un tema de trámite. No obstante, el Sr. Murua (Concejal no Adscrito), tiene el derecho de expresar su opinión.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak eta PP) eta 4 abstentzioz (atxiki gabeko zinegotziak),

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 14 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak y PP) y 4 abstenciones (Concejales no Adscritos)

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. **Hasiera ematea** “Errenteriako Udalaren Telefonia finkoa eta mugikorra” izeneko zerbitzua kontratatzeko espedienteari.

**1º.- INCOAR** expediente para la contratación del “Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria”.

2. Kontratua prozedura ireki bidez **egitea** (hainbat irizpide), eta tramitatu, berriz, ohiko eran.

**2º.- DETERMINAR** como forma de contratación la de procedimiento abierto (varios criterios) y forma de tramitación ordinaria.

3. **Onartzea** Kontratazio-espedientea, lizitazioa arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoen agiriak barne hartuta.

**3º.- APROBAR** el expediente de contratación, incluyendo los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativas y técnicas que han de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

regir la licitación.

4. Lizitazio-**deia egitea** egunkarietan eta arauzko buletinetan (EBAO, BOE eta GAO) eta **berrogeita bost (45)** egun uztea proposamenak egiteko iragarkia DOUEra bidaltzen denetik aurrera.

**4º.- CONVOCAR** licitación, anunciándose así en los Diarios y Boletines preceptivos (DOUE, BOE y BOTHG), por un plazo de **CUARENTA Y CINCO (45) días naturales**, a contar desde el envío del anuncio al DOUE, para que se puedan presentar proposiciones.

5. Bidezko gastua **onartzea**, Udal kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera.

**5º.- AUTORIZAR** el gasto correspondiente de conformidad con lo señalado por el Sr. Interventor Municipal.

6. Gobernu Batzordearen **esku uztea** kontratazioa amaitzeko beharrezko akordioak hartzea, kontratuaren esleipena barne, eta alkate-presidenteari kontratua sinatzeko eskumena ematea.

**6º.- DELEGAR** en la Junta de Gobierno la adopción de los acuerdos necesarios para culminar la contratación, incluida la adjudicación del contrato y al Sr. Alcalde-Presidente para la firma del mismo.

**10. Proposamena: Salmenta Ibiltaria Arautzeko Ordenantzaren hasierako onarpena.**

**10.- Propuesta de aprobación inicial de la Ordenanza Reguladora de Venta Ambulante.**

Errenteriako Udalak 2002an onartu zuen Salmenta Ibiltaria Arautzen duen Udal Ordenantza eta ordutik arau orokorren aldaketak izan direnez Ordenantza aldatzea dagokio. Aldaketa hau Ordenantza berri bat eginez burutuko da aurrekoa indargabetuz.

El Ayuntamiento de Errenteria aprueba en el año 2002 la Ordenanza Municipal Reguladora de la Venta Ambulante y con motivo de los cambios de legislación habidos desde esa fecha, procede su actualización. Actualización que se ha realizado a través de la redacción de una nueva Ordenanza en la que se deroga la anterior.

Udal aholkulari juridikoak honi buruzko txostena egin du 2010ko ekainaren 11n.

La Asesora Jurídica municipal ha emitido informe al respecto con fecha 11 de junio de 2010.

Trafiko eta Garraio batzordearen proposamena ikusitakoan,

Vista la propuesta de la Comisión de Tráfico y Transportes,

Mintzatu dira:

Se produce la siguiente intervención:

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du baiezkoa emango diotela han proposatzen denari, gehien bat ontzat jotzen dituztelako bi puntu:

* Toma la palabra la Sra. Cano (Concejala no Adscrita) y manifiesta en euskera que van a votar afirmativamente a lo allí se propone, principalmente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

batetik, zaborraren kontuari heltzen zaiolako, eta hori oso egokia dela uste dute. Eta bestetik, lehen elkarteari ematen zitzaion eskumenak Udalak berriro berreskuratuko dituelako. Edonola ere, gaia lantzeko asmoa dutenez, ekarpenak baldin badituzte, aurrerago egingo dituztela, gaineratu du.

por dos motivos: por una parte, se aborda el tema de las basuras, lo cual lo consideran muy importante. Y por otra, el Ayuntamiento recupera nuevamente las competencias que antes se otorgaban a la asociación. En cualquier caso, señala que como tienen la intención de trabajar el tema, si tienen aportaciones que realizar, las harán más adelante.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizada la intervención.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. Hasierako **onespena** ematea Salmenta Ibiltaria Arautzen duen Udal Ordenantzari, beti ere honekin batera doan testuaren arabera.

1. **APROBAR** inicialmente la Ordenanza Municipal Reguladora de la Venta Ambulante de acuerdo con el texto que se adjunta.

2. Jendaurrean **jartzea** 30 egunez interesdunek erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko, horretarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emango delarik. Inork ez balu erreklamazio edo iradokizunik egingo, behin betiko onartutzat joko litzateke.

2.- **ABRIR** un período de información pública y audiencia a los interesados para la presentación de reclamaciones y sugerencias por un plazo de 30 días mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Caso de no presentarse ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada.

**11. Proposamena: Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Iraunkortasunerako Konpromisoari atxikitzea; Udalsarea 21 Finkatzea (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea).**

**11.- Propuesta de aprobación de “Adhesión al Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco; Consolidación de Udalsarea 21 (Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad.**

**Aurrerakinak:**

**Antecedentes.**

2002ko abenduaren 20an sinatu zen Udalsarea 21 osatzeko hitzarmena, Iraunkortasunerako Euskal Udal Sarea. Bertan Tokiko Agenda 21 ezartzearekin konprometitutako EAEko herri guztiak biltzen dira.

Con fecha 20 de diciembre de 2002 se firmó el convenio de constitución de Udalsarea 21, la Red Vasca de Municipios por la Sostenibilidad, la cual aglutina a todos los municipios de la CAPV comprometidos con la implantación de la Agenda Local 21.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Tokiko iraunkortasunari buruzko politikei dagokienez, Errenteriako Udalak 2004ko urriaren 29an osoko bilkuran *Aalborg* gutunari atxikitzea onartu zuen. Adierazpen instituzional hori sinatu zen izen bereko Danimarkako hirian, horren bidez Udalak konpromisoa hartu zuen garapen iraunkorra sustatzeko, udalerriaren kudeaketan Iraunkortasun irizpideak hartzea bereganatuta.

En cuanto a las políticas de Sostenibilidad local, el Ayuntamiento de Errenteria en sesión plenaria de fecha de fecha 29 de octubre de 2004, aprobó su adhesión a la Carta de Aalborg, declaración institucional firmada originalmente en la ciudad danesa del mismo nombre, mediante la cual el Ayuntamiento se compromete a impulsar un desarrollo sostenible, asumiendo la adopción de criterios de Sostenibilidad en la gestión del municipio.

Geroago, 2006ko martxoaren 31n Udalbatzak onartu zuen *Errenteriako Iraunkortasunerako I Tokiko Ekintza Plana*ren *(2006-2010)* testua, eta Planaren betetze mailaren urteroko egungo hirugarren ebaluazioa egin ondoren (maiatzean bukatu zena), egiaztatu ahal izan da betetze maila %44-koa dela, udalerrien bataz bestekoaren gainetik.

Posteriormente, el Pleno del Ayuntamiento, con fecha 31 de marzo de 2006, aprobó el texto del 1$^{er}$ Plan de Acción Local para la Sostenibilidad de Errenteria. (2006-2010), y tras la tercera evaluación anual del grado de cumplimiento de dicho Plan de Acción finalizada, en mayo, se ha podido constatar que el mismo asciende a un 44%, situándose también por encima de la media de los municipios.

2009ko ekainaren 5ean, Urdaibaiko Adierazpenean, erronka gisa "EcoEuskadi 2020" aurkeztu zen, alegia, ikuspegi globala duen administrazio-tresna, iraunkortasun eredu baten alde apustu eginez, ingurumen, gizarte ekonomia eta kulturaren garrantzia txertatzeko.

El 5 de junio de 2009, en la Declaración de Urdaibai se presentó como reto "EcoEuskadi 2020", como instrumento administrativo de enfoque global, apostando por un modelo de sostenibilidad que integre las dimensiones ambiental, social, económica y cultural

2010eko apirilaren 7an Udalsarea 21eko Idazkaritza Teknikoaren eskutitza jaso zen. Bertan bidali zen "Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Iraunkortasunerako Konpromisoa; Udalsarea 21 finkatzeko testua (Iraunkortasunerako Euskal Udal Sarea)", Errenteriako Udalak onartu eta atxikimendua adierazi zezan.

Con fecha 7 de abril de 2010, se recibió un escrito de la Secretaria Técnica de Udalsarea 21, mediante el cual se remite el texto del "Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco; consolidación de Udalsarea 21 (Red Vasca de Municipios por la Sostenibilidad)", para su aprobación y adhesión por parte del Ayuntamiento de Errenteria.

Helburua da Udalsarea 21 erregulatzeko esparru finko berri bat ezartzea, izan ere, bere jarduera iraungitako hitzarmen batekin burutzen ari baita. Gaurko konpromisoa 2015eko abenduaren 31

El objeto es establecer un nuevo marco estable de regulación de Udalsarea 21, que se encuentra desarrollando sus actividades con un Convenio expirado. El actual compromiso se



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

arte zabaltzen da

extiende hasta el 31 de diciembre de 2015.

2010eko ekainaren 8an, Ingurumeneko udal teknikari Iñaki Azkaratek eta udal arkitekto Ramon Ruiz de Mendozak txosten bateratua egin dute.

Con fecha 8 de junio de 2010, el técnico municipal de medio ambiente, Iñaki Azkarate y el arquitecto municipal, Ramón Ruiz de Mendoza, emiten informe conjunto al respecto.

Mendi eta Ingurumen batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Medio Ambiente y Montes.

Hala nola udal kontu-hartzaileak 2010eko ekainaren 11n eginiko txostena.

Visto el informe del Interventor Municipal de fecha 11 de junio de 2010.

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du bere taldeak, hasiera batean, ez duela inolako eragozpenik puntuaren alde bozkatzeko. “Hasiera batean” dio, besteak beste, bere taldeko partaideentzat oinarri-oinarrizkoa delako hitzetik ekintzetara pasatzea, izan ere, proposamenean jasotzen diren akordioek gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da organo eta baliabide zenbait izatea. Hau da, bere taldeak aldeko bozka emango du baldin eta denek gauzatzeko konpromisoa hartzen badute. Horregatik eskatzen die alderdi Sozialistako partaideei eta alderdi Jeltzailekoei, ikuspuntu horrekin ados badaude, horixe adierazteko. Bere iritziz, urte amaierarako teknikariek eginiko txostenean jasotzen diren oinarrizko bi puntuak hobetu behar dituzte. Eta ondorioz, eskatzen du abian ipintzeko Tokiko Agenda 21 barnetik koordinatuko duen udal organoa, eta halaber, martxan ipintzeko, jendearen parte-hartzea, baliabide eraginkor gisa hartuta, ingurumena eta iraunkortasuneko aholku-kontseilua. Bere aburuz epe hori arrazoizkoa da, eta euren ustez konpromiso hori ez balute denek hartuko, ez luke zentzurik izango inolako konpromisoa hartzeak, hain zuzen Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasunaren aldeko konpromiso-hartzea keinu soil bat baino ez litzakeelako izango. Eta ez lukeelako barneko zein

* Toma la palabra el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) y manifiesta que su grupo, en principio, no tiene inconveniente alguno en votar a favor este punto. Dice “en principio” porque para los miembros de su grupo es fundamental pasar de las palabras a los hechos y que entienden que los acuerdos recogidos en esta propuesta exigen actuaciones que para llevarlas a cabo hacen falta una serie de órganos e instrumentos. Es decir, que su grupo votará a favor siempre que haya un compromiso por parte de todos. Por ello, solicita a los miembros del partido socialista y a los del partido nacionalista vasco que si comparten ese punto de vista así lo expresen. Continua diciendo que, de aquí a fin de año, hay que mejorar las dos cuestiones fundamentales que se señalan en el informe emitido por los técnicos. En ese sentido, solicita la puesta en marcha del órgano municipal de coordinación interna de la Agenda Local 21 y la puesta en marcha del consejo asesor en materia de medio ambiente y sostenibilidad como instrumento útil y eficaz en la participación pública. Considera que es un plazo suficientemente razonable y entiende que si no hubiera ese compromiso entre todas de las partes no tendría sentido suscribir compromiso alguno, porque adherirse al Compromiso por la Sostenibilidad Local



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

kanpoko baliabiderik izango konpromiso horretan exijitzen dena gauzatu ahal izateko.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du ingurumen mailan jasangarritasuna bilatzeko konpromisoari atxikimendua ematea dela une horretan planteatzen dena. Asmo horrekin, ziur aski, talde guztiak bat egingo dute, baina kontua da hori garatzeko garaian sortzen diren desadostasunak. Azken finean, garatzeko behar diren baliabideak, aurrekontuak, etab. jartzeko garaian ez dutelako lortzen behar den adostasuna taldeen artean. Zentzu horretan, Gobernu Taldeak erakutsitako jarrera eurentzat ahula izan da, eta hori frogatzen duten datu zenbait dituzte. Azken finean Gobernu Taldearen lehentasunen artean Tokiko Agenda 21ek garrantzia galdu duelako. Ondoren, gazteleraz jarraitu du, eta ondoko datu hauek eman ditu: 2008an Ingurumen Sailean 31.000 €ko inbertsioa egin zen, Udal honetako inbertsioen kapitulua 7,5 milioi eurokoa zelarik. Gaineratu duenez, datu horiek likidaziotik atera ditu, ez aurrekontuan aurre ikusikoetatik, eta beraz, benetakoak dira. 2009an, berriz, Ingurumen departamentuak ez zuen ezer inbertitu, inbertsioen kapitulua, ostera, 10,5 milioi eurokoa izan zen. 2010erakoan —aurreikuspenez ari da—, zuzenketa bati esker, 15.000 euroko gastua jasotzen da. Bien bitartean, inbertsioetarako aurrekontua 10 milioi eurokoa izan zelarik. Hau da, azken hiru urte hauetan inbertsioen kapitulua ia-ia 29 milioikoa den bitartean, Ingurumeneko kapituluak 46.000 euro baino ez ditu. Horrek %0,16 baino ez du suposatzen. Horregatik, beretzat zinegotziei konpromiso hau hartzeko eskatzeak ez du inolako zentzurik, are gutxiago jakinik Gobernu Taldeak, lehen emandako datuen arabera, ez duela inongo segurtasunik erakusten. Hori horrela, gogorarazi behar du planteamendu horrekin, era berean, ekintza-plana 2010 eta 2011 urteetara luzatu zela. Halaber, gogorarazten du ekintza plan horretako giza-agenteek, berori

en la Comunidad Autónoma del País Vasco quedaría en un mero gesto y no tendrían los instrumentos, tanto internos como externos, para llevar adelante lo que les exigiría dicho compromiso.

* Interviene el Sr. Murua (Concejal no Adscrito) y manifiesta en euskera que lo que se plantea en esos momentos es la adhesión al compromiso por la sostenibilidad a nivel de medio ambiente. Añade que con dicha idea seguramente estarán de acuerdo todos los grupos, pero la cuestión está en los desacuerdos que surgen a la hora de desarrollar el tema, puesto que en definitiva no alcanzan el acuerdo necesario entre los partidos a la hora de poner los instrumentos, presupuestos, etc. para su desarrollo. En ese sentido tienen que decir que la actitud mostrada por el Equipo de Gobierno ha sido débil, disponiendo de datos que demuestren la misma. En definitiva, consideran que la Agenda Local 21 ha perdido importancia entre las prioridades del Equipo de Gobierno. Continua en castellano diciendo que en el año 2008 la inversión que se hace en el departamento de Medio Ambiente es de 31.000 € cuando el Capítulo de Inversiones alcanzó en este Ayuntamiento 7,5 millones de euros. Está hablando, dice, de datos que se desprenden de la Liquidación; no son datos del Presupuesto recogiendo previsiones, sino que son datos reales. En el año 2009 la inversión que hace el departamento de Medio Ambiente es de cero euros, cuando el Capitulo de Inversiones alcanzó la cifra de 10.5 millones de euros. Para el año 2010 –habla de previsiones-, mediante una enmienda, se recoge un gasto de 15.000 euros, cuando la previsión en el Presupuesto de Inversiones alcanza los 10 millones de euros. Es decir, que en estos tres últimos años, el Capitulo de Inversiones ha alcanzado prácticamente los 29 millones de euros y en la inversión del Capítulo de Medio Ambiente tienen contemplados únicamente 46.000 euros, lo que supone un 0,16%. Por ello, pedir la adhesión de los concejales a este compromiso sin ninguna seguridad del Equipo de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

zehazteko garaian, salatu zutela

erabiltzen ari zen formula eta baztertuak izan zirela. Orobat gogorarazten du plan hori politikoek eta mahai-teknikoak 2010ean onartu zutela, eta %44an baino ez dela betea izan. Datu hau, datu orokorra denez, gustatuko litzaioke berorrek lehentasun ezberdinen inguruan ezartzen dituen alde nagusiak aitatzea. Hau da, eurek ez dakite zein portzentajetan burutu diren ekintza horiek, horietako zenbait gauzatzeko oso ahalegin txikia egin behar bazen ere. Horregatik, bere iritziz, datu partziala da, aurreikusitako ekintzetatik %50 baino gauzatzeko gai izan ez direla erakusten duena. Egoera horrek —dio— mesfidantza sortarazten du atxiki gabeko zinegotziengan, hots, Gobernu Taldeak ingurumeneko gaiei aurre egiteko duen borondatea edo ahalmenari dagokionean, zeren eta, aitatu dituzten datu ekonomikoek Gobernu Taldeak afera horretan ez duela borondaterik erakusten dutelako. Horregatik, konpromiso berri bat sinatzea iruditzen zaie ekintza-planean ezarritako helburuak lortzeko denek zerbait aportatuko lukeena baino, propaganda eta protokolo-ekintza bat gehiago dela. Amaitzeko esan du atxiki gabeko zinegotziak abstenituko direla, euren ustez, mota honetako adierazpenak onartzeko funtsezko aldaketa eman behar da Gobernu Taldearen jarreran ingurumeneko arazoei aurre egitekotan, eta batez ere, Gobernu Taldeak giza-agenteak esku hartzeko bideen aurka duen jarreran. Izan ere, azken gai hau ekintza-planean lehentasun gisa jasota baitago. Hortaz, bere aburuz, kontraesana ematen da sinatzen dena eta Gobernu Taldeak ingurumenaren aferan egin duenaren artean.

Gobierno con los datos antes reflejados, carece de todo sentido.

Hay que recordar, dice, que con este planteamiento se acuerda también que el plan de acción se prolongue durante los años 2010 y 2011. También recuerda que es un plan de acción en el que los agentes sociales, en su fase de concreción, denunciaron la fórmula que se está utilizando, y que fueron discriminados. Hay que recordar igualmente que ese plan, que fue aprobado por los políticos y la mesa técnica, en el año 2010 tiene un grave incumplimiento del 44%. Este dato es un dato general que le gustaría trasladar a aquellos aspectos que el mismo plan establece en relación a las diferentes prioridades que tienen las acciones que contempla. Es decir, que no saben en qué porcentaje se han realizado esas acciones, entre las cuales hay algunas que no suponía ningún esfuerzo llevarlas a cabo. Por ello, cree que es un dato parcial que lo que sí dice es que no se ha sido capaz de llegar al 50% de las acciones previstas. Esta situación provoca desconfianza en los concejales no adscritos en cuanto a la voluntad o capacidad que está demostrando el Equipo de Gobierno para afrontar temas de medio ambiente, ya que los datos económicos que ha mencionado evidencian la falta de voluntad del Equipo de Gobierno en esa materia. Por ello, el hecho de firmar este nuevo compromiso les parece más un acto de propaganda y de protocolo que un acto en el que todos creen y en el que todos van a poner de su parte para conseguir los objetivos establecidos en su plan de acción. Para finalizar, dice que los concejales no adscritos se van a abstener en la votación, porque entienden que para aprobar declaraciones de este tipo debe haber un cambio sustancial en la actitud del Equipo de Gobierno de cara a afrontar los problemas medioambientales, y especialmente, en la actitud manifiestamente contraria del Equipo de Gobierno a crear los cauces de participación de los agentes sociales, asunto que está recogido como prioritario en el plan de acción. Entiende que existe una



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

contradicción entre lo que se firma y lo que el Equipo de Gobierno está llevando a cabo en materia de medio ambiente.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du pozten dela "Udal-sarea eta Agenda 21"-en inguruan erdietsi den kontsentsuaz eta daukan garrantziari buruzko adostasunagatik. Jarraian adierazi duenez, berak ez daki Gobernu Taldeak, egiten duena egin, dena oso gaizki egiten duen besteen pesimismoagatik edo oposizio gisa paper-ortodoxoa egiteko gogoagatik. Gaineratu duenez, duela gutxi jakin dituzte Agenda 21-ek egindakoari buruz, urteak joan urteak etorri, egiten den auditoria modukoaren emaitzak. Horiek erakusten die Gipuzkoako udalerrien bataz bestekoaren gainetik daudela, eta haiek baino hobeto daudela. Era berean, emaitzek esaten die Agenda 21eko 300 ekintza ezberdin edukitzeak ez duela, besterik gabe, balio handirik aportatzen, aitzitik, uste du kontua nahasi egiten duela. Hala eta guztiz ere, bere iritziz, garrantzitsua da erakunde honetatik kanpoko organoek ondo egin dutela esatea, bataz bestekoaren gainetik alegia. Bestetik, ezin dute ahaztu afera hau, beste asko bezala, gai transbertsala dela. Hau da, ekintzaren eragina ez da bereekiko bakarrik, baizik eta gainontzeko departamentuetan ere eragina du. Hortaz, ez dira harritu behar azaltzen ez diren inbertsioekin, esaterako, energia aurrezteko, non milioi euro asko gastatzen ari baitira, baina ez dira Ingurumen Sailera bideratzen Agenda 21eko helburuak betetzearren, baizik eta Agenda 21eko helburuak betetzen ari dira energia aurrezteko instalakuntzak egiten ari direlako. Adibidez, inbertitu dute ura aurrezteko eta depuratzeko, gutxiago kutsatzen duten teknologia berriko ibilgailuak erosteko, etab. Baita ere egur mota jakin bat erabiltzeko erabakia hartu dutenean edo hori erabiltzen ez duten hornitzaileak ez onartzea, produktu toxiko zenbait erabiltzeari utzi, etab., etab. Jarraian esan du Ingurumen Sailak ingurumen-

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) se congratula de que hayan llegado al consenso y a la unanimidad en la importancia del hecho de que exista SAREA y la Agenda 21. A continuación indica que no sabe si el afán que existe en decir que el Equipo de Gobierno, haga lo que haga, lo hace todo fatal, es por pesimismo o por ganas de hacer un papel ortodoxo como oposición. Añade que hace poco han conocido los resultados de esa especie de auditoria que año tras año se hace sobre lo realizado por la Agenda 21, informándolos de que están en un porcentaje de ejecución por encima de los municipios de Gipuzkoa y de que no están tan bien como ellos, están mejor. Los resultados igualmente les dicen que tener 300 acciones diferentes en la Agenda 21 no aporta valor sino que, por el contrario, enreda el asunto. A pesar de ello, por un lado estima que lo importante es que órganos externos a esta institución les dicen que están bien y por encima de la media. Por otro lado, añade, no pueden olvidar que este tema, como muchos otros, es un tema transversal. Es decir, que no es una sola acción encuadrada en sí misma, sino que tiene repercusión en el resto de los departamentos. Por tanto, no debe extrañarles que no figuren inversiones que se están realizando -por ejemplo, en el ahorro energético- y a las que se están destinando muchos millones de euros. Pero, no se destinan en el Departamento de Medio Ambiente para los objetivos de la Agenda 21; se están cumpliendo los objetivos de la Agenda 21 haciendo inversiones en instalaciones que llevan aparejadas ahorro energético. Por ejemplo, en ahorro y depuración de agua, adquisición de vehículos adaptados a las nuevas tecnologías de menor contaminación, etc., o también cuando se ha decidido no usar determinada madera o no admitir proveedores que las utilicen, dejar de utilizar



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gaietan egiten dituen inbertsioetan erreparatzea errealitatea faltsutzea dela, errealitateak ekintza transbertsala dela erakusten duelako, eta ingurumenean asko inbertitzen direlako helburuak lortzearren. Gaineratu duenez, bera prest dago kontrolatzeko, koordinatzeko, iradokizunak aurkezteko, etab organoak abian ipintzeko. Aldiz, ezin ditu Aurrekontua gehitzeko instrumenturik abian ipini. Gainera, ez da behar memoria handia Kontu Orokorra onartzeko puntuan zer esan dioten gogorarazteko, izan ere, aurrezteko, ez gastatzeko, esan baitiote. Aldiz, orain, gauza asko daudela egiteko, gastatzen jarraitzeko esaten diote.

determinados productos tóxicos, etc. etc. A continuación dice que atenerse al dato de la inversión que el Departamento de Medio Ambiente hace en temas medioambientales es falsear la realidad, ya que la realidad es que es una acción transversal y en cualquier punto de la misma se está invirtiendo mucho para lograr sus objetivos. A lo que sí está dispuesto, añade, es a poner en marcha órganos de control, de coordinación, para presentar sugerencias, etc., lo que no puede hacer es poner en marcha instrumentos que incrementen el Presupuesto. No hace falta tener mucha memoria para recordar lo que han tratado en el punto anterior relativo a la aprobación de la Cuenta General en el que se le ha dicho que ahorre, que deje de gastar. Sin embargo, por otro lado se le dice que siga gastando que hay muchas cosas que hacer.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV eta PP) eta 6 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak eta atxiki gabeko zinegotziak),

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y PP) y 6 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak y Concejales no Adscritos)

**E R A B A K I D U**

1. **Onartzea** Errenteriako Udalaren atxikimendua "Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko *Iraunkortasunaren aldeko konpromisoari; Udalsarea 21 (Iraunkortasunaren Aldeko Euskal Udalerrien Sarea) finkatzeari*, Tokiko Agenda 21 prozesuaren inplementazioa berriro baieztatzearren, betiere konpromiso politiko eta etengabeko hobekuntza gisa Errenteriako herriaren garapen iraunkorra eman dadin laguntzeko. Atxikimendua indarrean egongo da gutxienez 2015eko abenduaren 31 arte.

2. Proiektu honetarako, honako udal teknikariak

**A C U E R D O:**

1º.- **APROBAR** la adhesión del Ayuntamiento de Errenteria al "Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco; consolidación de Udalsarea 21 (Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad)", en aras a la reafirmación en la implantación del proceso de Agenda 21 Local, como compromiso político de mejora continua en la contribución al desarrollo sostenible del municipio de Errenteria. Esta adhesión estará vigente mínimamente hasta el 31 de diciembre de 2015.

2º.- **DESIGNAR** como responsable y suplente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**izendatzea:** Iñaki Azkarate arduraduna eta Ramon Ruiz de Mendoza ordezkoa.

para este proyecto, a los técnicos municipales, Iñaki Azkarate y Ramón Ruiz de Mendoza, respectivamente.

3. **Onartzea** Errenteriako Iraunkortasunerako I Tokiko Ekintza Planaren (2006-2010) indarraldiaren luzapena 2011ko abenduaren 31 arte. Planaren ezaugarriak kontuan hartuta, ekintza ugari sartu dira, Tokiko Agenda 21-eko hainbat ekintza oraindik garatu gabe daudelako.

3º.- **ACORDAR** la prórroga de la vigencia del I. Plan de Acción Local para la Sostenibilidad de Errenteria (2006-2010) hasta el 31 de diciembre de 2011, dadas las características del Plan con un elevado volumen de acciones incluidas y la existencia de numerosas acciones de la Agenda Local 21 todavía sin desarrollar.

**12. Galderak eta eskariak.**

**12.- Ruegos y preguntas.**

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du administrari laguntzaileen oposizioetara aurkezturiko herritar taldearen gutun baten berri ematen diola. Bertan, pasa den ekainaren 15ean eginiko psikoteknia-probak sortu duen haserrearen berri ematen da. Horregatik, Alkateari esku hartzeko eskaria egiten dio, hain zuzen, proba egiteko garaian hala nola berori zuzentzeko garaian erabilitako metodoren inguruan sortu ziren zalantzak argitzeko.

* Toma la palabra el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) que traslada al Alcalde una carta que le ha llegado del grupo de vecinos que se han presentado a la oposición de auxiliares administrativos en la se refleja el profundo malestar que les ha generado la prueba psicotécnica desarrollada el pasado 15 de junio, por lo que solicita su intervención con el fin de que se aclaren todas las dudas surgidas tanto durante el desarrollo de la prueba como en relación al método de corrección de la misma.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du irakurriko duela, ikusten denez gutun-idazleek ez dutelako alderdi politiko guztiekin berdin konektatzen. Ez du ezer leporatu nahi, baina berak lehenengo aldiz aditu duen kontua da. Hortaz, lehenengo irakurri eta gero jardungo du.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que la leerá porque, al parecer, los redactores no contactan por igual con todos los grupos políticos. No quiere achacar nada, pero es la primera noticia que tiene, por lo que primero la leerá y después actuará en consecuencia.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du proba-psikoteknikoa enpresa pribatu batek egingo duela. Udalak haren jarraibideak bete baino ez du egiten, gaineratu du. Euskarari dagokionez, berriz, esan du proba horiek ez daudela egokituak euskaraz egiteko.

* Interviene el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y manifiesta en cuanto a la prueba psicotécnica que es una empresa privada quien la efectúa. El Ayuntamiento se limita a seguir sus instrucciones, y en cuanto al tema del euskera dice que estas pruebas no están adaptadas para realizarlas en euskera.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

---------------

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du ekainaren 16an eginiko Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordean Alkateari Udaltzaingoaren gimnasioa hornitzea eta Tiro-galeria geratzeko eskaria egin zuten batzordekideek. Udalaren gehiengo politikoak eskaera horri babesa eman dio, eta beraz, zera jakin nahi dute: batetik, ea aztertu duen eginiko eskaera. Eta bestetik, udal ordezkarien gehiengoaren eskaria kontuan hartuko duen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du eskarian dauden puntuetatik zenbait kontuan hartuko dituela eta beste zenbaitekin ez datorrela bat. Araudiak, aurrekontuak eta indarrean dauden arauek agintzen dutena egingo dela, esan du.

---------------------

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du Aldundiak ekainaren 1ean bidalitako gutun batean txosten bat jasotzen zela. Berorren 2. puntuaren bukaeran, nolabait, gomendio bat egiten zen, hain zuzen, Udalak dituen gastuak %5 jaisteko. Ia-ia hilabetea pasa denez, gustatuko litzaieke jakitea ea Gobernuak aholku horri jarraituko dion, eta hala bada, zer egin asmo duen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du Gobernu Taldea afera horrekin bilerak egiten ari dela, hain zuzen, horixe delako bere ardura.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia)

-------------------

* Interviene la Sra. Cano (Concejala no Adscrita) y en euskera dice que en la comisión de Presidencia y Régimen Interior de 16 de junio, los miembros de la misma solicitaron al Alcalde que paralizara el equipamiento del Gimnasio y la Galería de Tiro da la Guardia Municipal. Como la mayoría de la representación política del Ayuntamiento apoya dicha petición, desean saber lo siguiente: Por un lado, si ha estudiado dicha petición, y por otra, si tendrá en cuenta la solicitud realizada por la mayoría de los representantes municipales.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que de los puntos de los que ahí se hablaba unos los tiene en consideración y otros no los comparte. Se hará lo que marque el reglamento, lo que marque el presupuesto y lo que marquen las normas en vigor.

---------------------

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) en euskera dice que el día 1 de junio la Diputación remitió un escrito con un informe adjunto. Al final del segundo punto de este último, de alguna manera, se recomendaba al Ayuntamiento que redujera los gastos en un 5%. Como casi ha transcurrido un mes, les gustaría saber si el Gobierno va a tener en consideración la misma, y si es así, cuáles son las medidas que piensa adoptar.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) le responde que se están haciendo reuniones en relación a ese tema en el Equipo de Gobierno ya que es responsabilidad del mismo.

* El Sr. Murua Concejal no Adscrito) en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

galdetu du ea gomendioari jarraituko zaion %5 jaisteko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du aztertu dutela, eta ideia ahal den lekuan "guraizea sartze"koa dela, hain zuzen ez litekeelako bestela izan.

----------------

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du Aldundiaren 2010eko Aurrekontuaren foru-arauak, xedapen gehigarriaren bidez, ekonomiaren saneamendu-planak egiteko behar diren baldintzak zehazten ditu. Udalak Aurrekontua onartzeko erabakiaren zazpigarren puntuan aipatu plana Udalbatzarrak onartu behar duela esaten du. Orduan, Aurrekontuak apirilean onartu zirenetik bi hile pasa direnez, ondoko galderak egin nahi dituzte: ekonomiaren saneamendu-plana zein fasetan aurkitzen da? Noizko ekarriko duzu Udalbatzarrera?

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du ez egiteko galera erredundanteak. Izan ere, oraintxe bertan esan du aztertzen ari direla; derrigor murrizketak egin beharko dituztela eta ahal duten epearen barruan egin beharko dituztela. Gaineratu du, bezperan Ogasuneko diputatuarekin bilera bat egin zutela eta gai hauek atera zirela, berorrek tutelatu eta kontrolatu behar dituelako baldintzak betetzeko garaian. Berak uste garaiz daudela, nahiz eta, bost minututan egin ezin direnez, denbora behar dela uste duen. Udalaren bizia eta herritarrena ez da geratzen, eta eskaera hura bezala, beste mila dituzte atenditzeko. Hortaz, euren eginkizunetan buru-belarri ari direlako, pazientzia hartzeko, esan die.

euskera pregunta si se va a tener en cuenta la recomendación para reducir el 5%.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en contestación responde que se va a seguir estudiando y que la idea es "meter la tijera" donde se pueda; no puede ser de otra manera.

--------------------

* El Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) en euskera dice que la norma foral del Presupuesto de 2010 de la Diputación, en su disposición adicional, concreta los requisitos para llevar a efecto los planes de saneamiento de la economía. Por otra parte, en el punto séptimo del acuerdo para la aprobación del Presupuesto del Ayuntamiento se menciona que dicho plan tiene que aprobar el Pleno. Por ello, como los Presupuestos fueron aprobados hace ahora dos meses, desean realizar las siguientes preguntas: ¿en qué fase se encuentra el plan de saneamiento de la economía? ¿Cuándo piensa traer al Pleno de la Corporación?

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) solicita que no se le hagan preguntas redundantes. Acaba de decir que están estudiándolo, que, forzosamente, tendrán que hacer recortes y habrá que hacerlo en el tiempo que se pueda. Añade que ayer tuvieron una reunión oficial con el Diputado de Hacienda en la que salieron estos temas y éste entiende, siendo la parte que los tiene que tutelar y controlar el cumplimiento de los requisitos, que están en tiempo y forma. Pero, este asunto requiere tiempo, no se puede hacer en cinco minutos. Tampoco se para la vida municipal ni la de los ciudadanos y hay que atender a ese frente y a mil más. A continuación solicita que sean pacientes a la vez que dice que están en ello con la máxima intensidad y conciencia de lo que deben hacer.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du berak ez duela erredundantea izan nahi, baina, bere iritziz, bi gauza ezberdin dira. Bat da Aldundiak ematen duen gomendioa, Alkateak bete edo bete gabe utz dezakeena. Eta bestea, Udalbatzaren akordioa, zeinaren zazpigarren puntuan, saneamendu-plana aurkeztu behar dela baitio.

* El Sr. Murua (Concejal no Adscrito) indica que no quieren caer en la redundancia, pero piensa que son dos cosas diferentes. Una es la recomendación que hace la Diputación, que el Alcalde puede o no cumplir, y otra cosa el acuerdo plenario, que en su punto número siete establece que se tiene que presentar un plan de saneamiento.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du biak beteko dituztela. Beretzat dena barruan sartuta zegoen, eta horregatik zioen erredundantea zela.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) indica que ambas se cumplirán. Para él van dentro del mismo lote, por eso entendía que era redundante.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

------------------

---------------------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 10:15 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 10:15 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net